

ZIENTZIA ESPERIMENTALAK

Oihana IDOATE ERREA

TRATAMIENTO DEL ESPACIO EXTERIOR EN  
ESCUELAS INNOVADORAS DE EDUCACION  
INFANTIL

*KANPO ESPAZIOAREN TRATAERA HAUR  
HEZKUNTZAKO IKASTETXE BERRITZAILEETAN*

TFG/GBL 2013

**upna**  
Universidad  
Pública de Navarra  
Nafarroako  
Unibertsitate Publikoa

Facultad de Ciencias Humanas y Sociales  
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Grado en Maestro de Educación Infantil /  
*Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua*

**Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua**  
**Grado en Maestro en Educación Infantil**

Gradu Bukaerako Lana  
Trabajo Fin de Grado

**KANPO ESPAZIOAREN TRATAERA HAUR  
HEZKUNTZAKO IKASTETXE BERRITZAILEETAN**

***TRATAMIENTO DEL ESPACIO EXTERIOR EN  
ESCUELAS INNOVADORAS DE EDUCACION  
INFANTIL***

Oihana IDOATE ERREA

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA  
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

**NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA**  
**UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA**

**Ikaslea / Estudiante**

Oihana IDOATE ERREA

**Izenburua / Título**

Kanpo Espazioaren trataera Haur Hezkuntzako Ikastetxe Berritzaileetan/ El tratamiento del Espacio Exterior en las Escuelas Innovadoras de Educación Infantil

**Gradu / Grado**

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Infantil

**Ikastegia / Centro**

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

**Zuzendaria / Director-a**

Aranzazu GURUCEAGA ZUBILLAGA

**Saila / Departamento**

Psikologia eta Pedagogia Saila/ Departamento de Psicología y Pedagogía

**Ikasturte akademikoa / Curso académico**

2012/2013

**Seihilekoa / Semestre**

Udaberriko / Primavera

## Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapitulu hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Haur Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3854/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3854/2007 Aginduaren arabera, Haur Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktikan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituen. Azkenik, ECI/3854/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3854/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakutsi dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Haur Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako moduluak bidea eman digu haurren garapena eta honen gaitasun ezberdinen prozesua zein den ikusteko. Era berean prozesu honetan irakaslearen papera zein den ezagutzeko eta haurren garapena ahal den egokien aurrera eramateko.

Didaktika eta diziplinako moduluak esparrua ematen dio Zientziaren Didaktikaren inguruko Marko Teorikoa ezagutzeko. Honekin batera, esparru honetan lantzen diren gaitasunak ezagutzeko eta prozesua hau nola aurrera eramaten jakiteko.

Halaber, Practicum moduluan zehazten da ikastetxe ezberdinetan bizi izandakoaren eta beste bideetatik ezagututakoarekin, haurren egunerokotasuneko beharren eta nahien garrantzia. Haurren garapena eta erantzuna ezagutzeko bide izanda.

Azkenik, aukerako moduluan garatzen da haurren erritmo ezberdinak errespetatuz, haurren garapen anitzetara egokitzearen garrantzian. Honekin, haurren Berariazko Beharrak edota Behar Bereziak kontuan hartzeko espazio anitz bat sortu behar delakoan gaudelako.

Beste alde batetik, ECI/3854/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, hizkuntza honetan idatziko dira "Antecedentes" eta "Conclusiones" atalak, baita hurrengo atalean aipatzen den laburpen derrigorrezkoa ere.

## Laburpena

Azkeneko urteetan, ezagutzen dugun gizarteak aldaketa anitz izan dituen bitartean eskolak ere eraldaketa bat jasan du. Duela 30 urte eskola bakarra eta tradizionala geneukan eta gaur egun, eskola anitzak aurkitu ditzakegu. Prozesu honetan hainbat eragilek hartu dute parte. Horien artean teoria berritzaile eta egile esanguratsu asko aurkitu ditzakegu. Hezkuntzan jasan den eraldaketak, Haur Hezkuntza ikusteko eta ulertzeko ikuspuntua aldatu du. Haur Hezkuntzaren eremu ezberdinetan ikusi genezake aldaketa hau eta batez ere Zientzia eremuko hezkuntzan. Esaterako: Kanpo Espazioarekiko trataeran eta esplorazioaren garrantzian. Hau ikusteko, hiru ikastetxe berritzaile Kanpo Eremua nola erabiltzen lantzen duten aztertuko dut. Rosa Maria Pujolen hitzetan 4 fase bete behar dira, Ikaskuntza Esanguratsu egokia lortzeko. Ikastetxe hauen trataera esanguratsua izatekotan ere faseren bat ahul gelditzekotan, proposamen pedagogiko egokiak behar zaizkio eman. Ikusiko den bezala, hezkuntzan egon den eraldaketa honek ikastetxe berritzaile anitzak sortu ditu eta denak oso ezberdinak haien artean.

Hitz klabeak: Berritzailea; Esplorazioa; Ikaskuntza Esanguratsua; Espazioa; Haurra.

## Resumen

En los últimos años, la sociedad que conocemos ha sufrido diversos cambios y con ello, podemos decir que la escuela ha evolucionado substancialmente. Hace 30 años existía una sola escuela única y tradicional y hoy en día, podemos encontrar diversas escuelas. En este proceso han intervenido diferentes causas. Entre ellas podemos encontrar, la aplicación de teorías innovadoras y sus autores más destacados. El cambio en la Educación, ha influido en el punto de vista que había sobre la Educación Infantil. Este cambio podemos verlo en diferentes ámbitos de la Educación Infantil y sobre todo en el ámbito del aprendizaje de la Ciencia. Como por ejemplo: En el tratamiento del Espacio Exterior y la importancia de la exploración. En este trabajo analizaremos tres escuelas innovadoras y el tratamiento que le dan al Espacio Exterior en ellas. Según la teoría de Rosa M Pujol en este proceso tiene que cumplirse 4 fases, para así poder lograr un Aprendizaje Significativo. Para que tratamiento en estas escuelas sea significativo, en el caso de que alguna fase quede débil, deberá ampliarse con una

propuesta pedagógica adecuada. Como se va a poder ver, con este cambio en la educación han surgido diversas escuelas innovadoras y entre ellas muy diferentes.

Palabras clave: Innovadora; Exploración; Aprendizaje Significativo; Espacio; Niño o niña.

### **Abstract**

In the last years, the society that we know, has suffer various changes and with it, the school has turned around. 30 years ago, there was only, one traditional school system, and nowadays, we can find several schools. Different causes have intervened in this process. Among them, we can find some innovative theories and their most influential authors. The change in Education has influenced the view that we had about Pre-Primary Education. We can see it in different areas of Pre-Primary Education and especially in Sciences area. For example: The treatment of Outside Space and the importance of the exploration. In order to see it, you are going to see tree innovative schools and the treatment they give to outside space. According to Rosa M<sup>a</sup> Pujol's theory, this process must have 4 phases, in order to achieve a Meaningful Learning. The treatment in these schools must be significant and if not, it has to be improved with an appropriate pedagogical proposal. As you will be able to see, with this change in education, have emerged several innovative schools and they are very different each other.

Keywords: Innovative; Exploration; Meaningful Learning; Space; Child.

## **Aurkibidea**

<b>Antecedentes</b>	<b>1</b>
Contexto histórico	1
Objetivos y Cuestiones	6
<b>1. Marko Teorikoa</b>	<b>9</b>
1.1. Hezkuntza Teoriak	9
1.2. Haur Hezkuntza Teoriak	18
1.3. Zientzia erreferentziak	26
1.3.1. Rosa M <sup>a</sup> Pujol	26
<b>2. Garapena</b>	<b>31</b>
2.1. Ikastetxeen Deskribapena	32
2.1.1. Buztintxuri	33
2.1.2. El Martinet	37
2.1.3. Oihanzabal	40
2.2. Taula	43
<b>3. Proposamen Pedagogikoak Ikastetxeetan</b>	<b>45</b>
3.1. Buztintxuri	45
3.2. El Martinet	48
3.3. Oihanzabal	50
<b>Conclusiones</b>	<b>53</b>
<b>Erreferentziak</b>	<b>57</b>
<b>Eranskinak</b>	<b>61</b>
E. Eranskina I	61
E.Eranskina II	62





## **ANTECEDENTES**

La sociedad de hoy en día presenta una diversidad de escuelas, desde la más tradicional hasta la más moderna. En los últimos 30 años, la sociedad que conocemos ha evolucionado muy rápidamente y cambiado las bases de la educación que conocíamos. Los avances se han llevado a cabo, en el entorno más cercano y en Europa pero también en el contexto mundial. Por ello, hemos pasado de tener una escuela tradicional única a una variedad de escuelas nuevas. Decimos variedad ya que la escuela nueva no tiene un único modo de enseñanza, sino varias, dependiendo de su entorno.

Con este trabajo lo que quiero trabajar la caracterización tanto de la escuela tradicional como de la moderna que tenemos en la actualidad, siempre, desde la perspectiva de la Educación Infantil. Además, me gustaría ir más allá y centrarme en el ámbito de la ciencia y en el cómo se trabaja el *Espacio Exterior* en las distintas escuelas.

Para ello, en primera lugar, hablaré de la evolución de la Escuela Infantil en los últimos 30 años. Ya que en cualquier intervención o investigación, es necesario situarnos en el entorno en el que estamos y donde llevaremos a cabo dicha investigación.

### **Contexto Histórico**

En este punto quiero subrayar, como ha cambiado la sociedad que conocemos hoy en día y como ha sido este proceso. En la sociedad que teníamos hace 30 años, solo existía un modelo educativo único e insustituible. Desde entonces hasta hoy, la escuela ha dado un vuelco y ahora podemos encontrar diversidad de escuelas allá donde vayamos. Desde la más tradicional a la más innovadora, y en algún caso hasta alguna en la que puedan trabajar con una metodología autónoma. La época que ha habido entre estas dos etapas es muy significativa, ya que esto explica la diversidad de metodologías que hay a día de hoy. En los últimos años desde Europa u otros países del mundo, se han aportado novedosas teorías y con ello nuevas maneras de enseñar y educar. Entre ellas podríamos citar: Italia, Cuba o Finlandia. Estos países han tenido

mucha influencia en el sistema educativo que conocemos actualmente. Los sucesos acaecidos en los últimos años y los autores surgidos de estas épocas, son los que han cambiado el rumbo educativo de estos países. Muchos de estos autores han llegado a ser reconocidos mundialmente. Por ejemplo: Vigosky, Piaget, Montessori, Malaguzzi, Pikler. Como se puede contemplar muchos de ellos son de hace más de 30 años, pero podríamos decir que hay países que recibieron sus influencias más tarde que pronto. Las influencias de cada uno de estos autores se dan en diferentes ámbitos de la educación. Algunos de ellos son conocidos por sus teorías sobre la evolución del niño o niña y sus teorías sobre la educación. Mientras tanto, las aportaciones de otros, se centran en la Educación Infantil y en el significado de este.

En nuestro caso tenemos un sistema educativo que ha cambiado respecto a lo que ocurría en la *Europa* más cercana. Aunque el rumbo educativo de Europa haya sido similar, la diversidad de escuelas es muy amplia. A pesar de la diversidad, en muchos países europeos los problemas educativos son muchos y sobre todo en el contexto de la escuela. Como se ha dicho muchas veces países como Finlandia con reconocidos mundialmente por tener un sistema educativo más innovador. Pero a pesar de eso aun tiene varios puntos frágiles entorno a la escuela. Como en el caso de Finlandia hay muchos otros y como la duda es mayoritaria, La comunidad educativa de Europa se ha propuesto unos principales retos, según apareció en la revista HIK-HASI (Febrero de 2010). Federico Mayor Zaragoza director de la UNESCO, cito 9 retos propuestos para la educación de 2020, en el artículo *Nazioarteko hezkuntza: Egoerak eta erronkak*. A continuación citaré algunos de ellos como manera de estructurar la situación de hoy en día:

1. Actualización continúa de las competencias del profesorado. La calidad de la educación está en la calidad del profesorado y su dedicación. Ello también conlleva la relación con el alumnado y sus familias (Primer reto).
2. Todas las materias tendrán contenidos educativos. Poniendo especial interés en valores que eduquen ciudadanos cuidadosos y a la educación ciudadana. En los últimos años, las matemáticas y los idiomas han tenido especial importancia en la Unión Europea, casi siempre citados en ciclos (Segundo reto).

3. El entorno de la educación ha cambiado. Hay que tener en cuenta los nuevos conocimientos y sus aportaciones, y con ello los procesos cognitivos y las investigaciones que se hacen en ellos (Cuarto reto).
4. Hay que mirarle con detenimiento al conocimiento contemporáneo ya que este está avanzando continuamente. Tendrán prioridad, en parte el conocimiento científico y por otra, la referencia cultural, étnica y los conocimientos históricos y sociales que nos aporten oportunidades de seguir avanzado.

Esta es la Europa que tenemos hoy en día. Después de haber analizado el contexto Europeo y sabiendo los retos que tiene este, vamos a ver los retos que tiene la escuela nueva e innovadora para Europa.

#### *Escuela Innovadora*

*La escuela nueva o moderna* es un término que ha aparecido en los últimos años y lo único que está claro es que quiere transformar las bases fundamentales de la escuela tradicional. Teniendo esto en cuenta, la mayor preocupación que existe respecto a esta nueva escuela, es que no está claro hacia dónde vamos. A la sociedad le da miedo ir rumbo a algo tan incierto y le surgen dudas respecto a esto: ¿Qué es la escuela nueva? ¿Cómo trabajaremos en ella? ¿Cuál es el papel del profesor? ¿Y el del niño o niña? ¿Cómo haremos para que estos salgan como ciudadanos y ciudadanas capaces y competentes? Para responder a estas preguntas hablaré de los principales aspectos a desarrollar en la escuela moderna. Para ello he usado la información obtenida de esta página web en la cual se comparan las citadas modalidades de escuela. Ver, *Erreferentziak (EFGG.Comparación de la Escuela Tradicional y la Escuela Moderna)*.

Los principios son los siguientes:

1. En primer lugar tenemos al “niño o niña” el cual pasa de ser un elemento pasivo a uno *más activo y emprendedor*, y todo está organizado para que este desarrolle todas sus capacidades.

2. En segundo lugar, *la relación alumno profesor* también cambia. En la escuela tradicional el maestro era el que tenía la enseñanza y el niño o niña era quien memorísticamente tenía que aprenderse. Después de este planteamiento la escuela nueva o moderna cambia este aspecto conduciéndolo en ambas direcciones. Profesor  $\leftrightarrow$  alumno. El maestro actúa de mediador, de consejero o de orientador, adaptando la enseñanza a las capacidades de cada niño o niña.
3. En tercer lugar está el *conocimiento* o la enseñanza la cual debe transmitirse teniendo en cuenta el interés del alumno y de toda la clase. Esta enseñanza pasa de ser memorística a ser un conocimiento por la experiencia y el maestro debe saber penetrar en estos conocimientos del día a día. La enseñanza debe de ser con sentido, valor y dirección.
4. *Estas metodologías* de enseñanza pueden ser variadas, pero siempre teniendo en cuenta los siguientes aspectos: Las capacidades del niño o la niña deben de ser libres para desarrollar, como la iniciativa, la imaginación o la creatividad, la enseñanza debe de ser lo más individualista posible para mejor aprendizaje, el alumno aprende a través de su propia experiencia y búsqueda. Entendiendo y respetando siempre que cada niño o niña es diferente y tiene sus propias capacidades y ritmo.

En general la escuela nueva tiene como principal objetivo educar al niño o niña para que sepa desenvolverse en la sociedad y no sólo en el ámbito escolar. Se entiende que la enseñanza es un bien común y un derecho humano que todo niño o niña debería tener. Con ello trabajan 3 aspectos fundamentales, según aparecen en el *Curriculum de Educación Infantil*:

<http://dpto.educacion.navarra.es/publicaciones/pdf/currinfantileusk.pdf>

Su desarrollo en el conocimiento propio y autonomía personal, su desarrollo en el contexto más próximo y desarrollo en base a los idiomas y el lenguaje. Respecto al *ámbito científico*, se trata de una escuela que trabaja aquellos procedimientos y

actitudes propios de la ciencia como es el observar y trabajar desde la experiencia más próxima. Por ello, el aspecto científico no sería menos.

Siempre tenemos que tener en cuenta que según expertos, la Educación innovadora en cada país, comunidad o pueblo cambia, respecto al entorno o sociedad en la que estemos. En este sentido, la Educación aunque es universal, cambia según en el lugar en el que nos encontremos y las personas que estén en él. Como ya sabemos, tanto en Europa como a través del mundo, hay diversidad de sistemas educativos. A citar: Finlandia, Japón o Cuba. Por tanto no hay una sola escuela nueva, *hay muchas escuelas innovadoras* y muchas son las variables que influyen en ella.

### *Escuela Tradicional*

Para poder entender el sentido del surgimiento y evolución de la escuela innovadora es importante mirar hacia atrás. Por tanto, aquí tenemos las bases generales de la escuela tradicional. La *Escuela Tradicional* defiende el llamado *Sistema Educativo Educare* y sus bases. Como ya se ha citado en el punto anterior, para esta comparación, se ha recogido la información presente en la siguiente página web: *Ver, Erreferentziak (EFGG.Comparación de la Escuela Tradicional y la Escuela Moderna)*.

1. *El alumno* es quien recoge de forma pasiva, la enseñanza oral que trasmite el profesor, También ha de decirse que el castigo ese l refuerzo negativo más usado.
2. *El profesor* es quien tiene la verdad absoluta y todo el conocimiento. Las clases suelen ser magistrales e impuestas. La relación alumno profesor es mínima y solo se trasmite de profesor, quien trasmite la información, al alumno. El profesor no usa la enseñanza individualizada y no se adapta a las necesidades y capacidades del niño o niña.
3. El objetivo primordial es que el alumno aprenda *los conocimientos* manera memorística, objetiva y descriptiva. La enseñanza no se compara nunca con la realidad y con las actividades de, día a día. Todo suele ser teórico y memorístico, no hay lugar para la experiencia.

4. *Aprendizaje y Metodología*: Se basa en memorizar los conocimientos de manera mecánica y memorística. La evaluación suele ser cuantitativa y se evalúa un examen objetivo y teórico.

En esta última podemos ver que la base de esta educación es la siguiente: El profesor o maestro transmite el conocimiento al alumno. El niño o niña no tiene conocimiento alguno y este tiene que transmitírselo. Esta es la teoría de "la cabeza vacía". En esta escuela a todos los alumnos se les enseña de la misma manera, y no se tiene en cuenta las dificultades o problemas que suelen surgir en él. A la vista está que no hay cambio de una Educación Primaria a una Infantil. Por lo tanto tampoco hay diferencias en el modelo de enseñanza entre diferentes ámbitos. Como puede ser el Científico. Porque, como se ha podido ver, en todos los ámbitos se aprende de forma teórica y sin aplicación o experiencia ninguna. Por ello hablamos de una educación centralizada y única para todos y cada uno de los alumnos sin excepciones.

Estas serían las bases teóricas de una escuela tradicional. Hay que decir que no cabe la menor duda, que el mundo está en un momento de cambios pero que a pesar de esto en muchos países y comunidades todavía se sigue ejerciendo este tipo de enseñanza. En algunos de estos países porque las nuevas influencias todavía no han llegado o porque en el contexto actual de ellas no hay lugar para otro tipo de enseñanza. Además de esto, no existe un solo país que tenga un único modelo de enseñanza. Por eso decimos que hoy en día nuestra sociedad convive con *La Escuela Innovadora* y *La Escuela Tradicional*.

### **Objetivos y Cuestiones**

Habiendo visto el contexto histórico actual, vemos que vivimos en un mundo donde conviven las dos escuelas: *La Tradicional* y *La Innovadora*. A pesar de que las dos dan un abanico de posibilidades para la investigación, me he decantado por trabajar con la segunda, ya que en numerosas escuelas de infantil de nuestro contexto más cercano existen importantes experiencias innovadoras.

En esta investigación, analizaré tres escuelas de nuestro entorno, indicadoras de este cambio. Se trata de escuelas Innovadoras que tienen como referentes a expertos y que trabajan con una metodología concreta. Con ello, intentaré identificar y proponer propuestas de mejora a los puntos débiles encontrados en su enseñanza. Mi estudio se centrará en el tratamiento que se le da al *Espacio Exterior* en las citadas escuelas. Por ello, el objetivo de este trabajo sería en siguiente:

*Teniendo en cuenta las vivencias tenidas en tres escuelas, se analizarán éstas en relación al tratamiento que cada una de ellas hacen del “Espacio Exterior”, identificando y proponiendo mejoras. (EUS: ezagututako hiru eskola “Kanpo Espazioaren” trataeraren aldetik aztertuko dira eta hobekuntza gunean identifikatuz proposamenak egingo dira).*

En base a este objetivo, la pregunta central a la que quisiera contestar en este trabajo y por el cual lo llevo a cabo, es el siguiente:

*¿Cómo se trabaja “el Espacio Exterior” como elemento educativo en diferentes escuelas, teniendo en cuenta indicadores significativos en relación al aprendizaje de la ciencia?*





## 1. MARKO TEORIKOA

Puntu honetan, lanaren galdera nagusian aipatutako adierazleak identifikatzeko kontutan hartuko ditugun teoria edo autoreen ideiak azalduko dira. Hauek oinarritzat hartuta ondorengo atalak landu ahal izango ditugu, beraz, hau sakontzea esanguratsua da oso.

Karreraren osoan zehar ezagutu ditugun autore edo teoretatik, gure gaiarekin bat datozenak azalduko dira. Gaur egungo testuinguruan dauden eskola berritzailetan eragin handia izan duten egile eta teoriak izanen dira. Hauek, 3 ataletan berezitu nahi izan ditut autore hauek eta heien teoriak. Lehenik eta behin, *Ikaskuntza Teoriei* dagozkien autore esanguratsuenak azalduko dira. Autore askoren artean hauek aukeratu ditut, haurraren eta ingurunearen arteko interakzioan, eta Konstruktibismoan sinesten dutelako. Esaterako: *Vigotsky, Piaget, Chomsky, Brunner, Ausubel eta Novak*. Bigarren, *Haur Hezkuntzaren* inguruan lan egin duten autoreak izango ditugu. Esaterako: *Montessori, Malaguzzi, Pikler...* Azkenik, *Zientziaren erreferenteen* inguruan eta beraz, Kanpo espazioaren inguruan gehiago aztertu duen autorea agertuko da: *Rosa M<sup>a</sup> Puyol*. Aurrerago beste adierazle batzuek hitz egingo dut eta hauek ere autore hauek aukeratzekoan kontuan hartu ditut. Ondorengoak dira: *Irakaslearen papera* haurraren heziketan, hezkuntza *askatua edo gidatua* izan beharreko ideia, *denborari eta espazioari* ematen dioten esanahia, eta azkenik, *Kanpo Espazioaren esplorazioaren* inguruan daukaten ideia.

### 1.1. Hezkuntza Teoriak

1.1.1. *Jean Piaget* (1896-1980, Neuchatel): *Ikusi, Erreferentziak* (1999, HIK-HASI. PIAGET, Jean) eta (*Garapen Kognitibo Motorra*, 2005)

Filosofo, natur zientzialari eta psikologo suitzarra izan zen eta haurren garapen kognitiboari buruz hainbat ikerketa egin zituen. Piaget haur goiztiarra izan zen eta 1918rako biologian lizentziatu zen bere hiriko unibertsitatean. 1919an psikologiaren inguruan bi lan argitaratu zituen eta psikoanalisiari buruzko interesa piztu zitzaion. Haur psikologiari buruzko lan ugari argitaratu zituen eta inteligentzia sentsu-

motorraren inguruan teoria bat garatu zuen. Ekintzetan oinarritutako inteligentzia hau, umeak espazioa, denbora eta kausei buruz duen pertzepzioaren arabera da.

Piaget bere ikerketetan garapenaldi edo fase ezberdinak daudela ohartu zen eta batzuetan asimilazioa eta besteetan egokitasuna nabarmentzen direla. Horrela lau fase epistemologiko (kognitiboak) dituen sekuentzia definitu zuten.

1. *Fase sentsu-motorra*: Fase hau urte eta erdi eta bi urteraino irauten du eta haurrak bere zentzumenak eta gaitasun motorrez baliatzen da, ingurunea ezagutzeko. Hasieran erreflexuak dira eta gero, gaitasun sentsoaletan eta motorretan bilakatzen dira.

- a. Lehen mailako erreakzio zirkularrak: (1-4 hilabete) Plazerrak sortzen dizkion ekintzak errepikatzen ditu haurrak.
- b. Bigarren mailako erreakzio zirkularrak: (4 hil-urte 1) Bere ekintzak ingurunea dauden objektuak manipulatzeko erabiltzen ditu. Bere ekintza horrek ze ondorio daukanaren arabera errepikatuko du.
- c. Hirugarren mailako erreakzio zirkularrak: (12 hil-18 hil) Aurreko pauso berdinak jarraitzen ditu baina aldaketa batzuk izaten ditu.

18 hilabete hauen ostean haurra gai da egiten dituen ekintzen ondorioak ezagutzeko eta lehenengo joko sinbolikoak hasten dira.

2. Operazioen aurreko fasea: (2-7 urte) Aurreko faseko erreakzioak barneratzen dira Ekintza mentalak direlako, baina oraindik ez dira zehatzak. Hauek zehatzak eta itzulgarriak ez direlako, eta desegokiak izan daitezkeelako.

3. Bi fase hauen ondoren, beste *bi fase* datoz: Ekintza konkretuen fasea eta Ekintza formalen fasea.

- a. Ekintza konkretuen fasea: (7-11 urte) Ekintzak, arazoak konpontzeko ekintzak izaten hasten dira. Umeak, sinboloak modu logiko batean erabiltzen ditu eta gordetzeko gaitasuna izaten du. Honekin, orokortzen hasten da.

- b. Ekintza formalen fasea: (12 urtetik aurrera) Haurrak bere gaitasunak, egoera abstraktuetara egokitzeko edo aplikatzeko zailtasunak edukiko ditu.

*1.1.2. Lev Seminovitx Vigotski: Ikusi, Erreferentziak (Garapen Kognitibo Motorra, 2005), (Perspectivas, 1999), (Educar, articulos, 1999) eta (Mind in society, 1978).*

*Lev Seminovitx Vigotski* (1896-1934) psikologo bielorrusiarra izan zen, garapen psikologian eta neuropsikologian aditua. Gizakiaren garapena elkarrekintzan duela zihoen eta hori izan zen bere obren oinarria. Garapena, inguruan ditugun instrumentu kulturalen barneratzean datzala zihoen. Adimenaren garapenaren inguruan hainbat kontzeptu berri sortu zituen. Inguruarekiko adaptazioa, hizkuntza egoentrikoa, hizkuntza eta barne hizkuntza, autokontrola eta hizkuntza kontzientziaren hedapena, sinesmen faltaren teoria.

#### *1. Adimenaren teoria:*

Eguneroko harreman interpersoneletako gertaerak, norberaren munduaren isla dira eta hori kontuan hartu beharrekoa da. Egoera mental hauek, besteen eta norberaren jarrerak ulertzeko eta aurreikusteko balioko digutelakoz. Adibidez, pertsona bati arazoren batez gogoratzeko eskatzen badiogu, pertsona horrek arazoaren zergatia, oroitzapenak...bilatu beharko ditu. Eragiketa hauen bildumari, "adimen teoria edo gaitasuna" deritzo, besteen edo norberaren eragiketa mentalei erreferentzia eginez.

- a. Sinesmen faltaren teoria: Haurrek adimenaren teoria eskuratu dutela frogatzen duen teoria da hurrengoa. Haurrek benetan besteen egoera mentalak ulertzeko gauza diren edo egoeraren interpretazio bat eginez irtenbidea bilatzen duten frogatzeko.
- b. Garapen hurbileko eremua: Beti ere ahal dutenarena baino pixka bat gehiago (garapen hurbileko eremuan) lan egin behar zela zihoen. Haurra eremu batean baldin badago, pixka bat gehiago eskatu behar zaio, garapena aurrera joateko.

- c. Ingurunearekiko adaptazioa: Haurra lehen bai lehen errealitatean dagoenera egokitu behar da eta bertan dauden arau eta printzipioetara. Hau da, izaki sozial kompetente bat bilakatu.
- d. Hizkuntza: Hizkuntza instrumentu soziala zela zihoen, besteekin harremanatzeko, konpartitzeko eta laguntzeko balio izaten diguna. Hau da, hizkuntzaren funtzio nagusia komunikatzea dela. Hizkuntza egozentrikoa, Vigotskiren arabera hizkuntza mota hau ez da sozializazio eza, baizik eta indibidualizazio eza. Hau haurtzaroan ezagutzen da. Barne hizkuntza aldiz, lengoia egozentrikoa bezala ere ezagutua izan da haurtzaroan. Hau, lengoia komunikatiboan dauka oinarria eta denbora pasa ahala forma aldatuz doa, norberaren komunikazio propioa bilakatzen da helduaroan. Autoerregulazio berbalak jarraitzen du handik aurrera baina barne munduan garatzen da.
- e. Autokontrola eta hizkuntza kontzientziaren hedapena: Autoreak kontzientziaren jatorria bizitza sozialean kokatzen du eta bere ustez, pentsamendu indibiduala da sortu behar dela. Momentu hau oso esanguratsua da bai autokontrolaren aldetik eta bai hizkuntzaren kontzientziaren aldetik. Honetarako, zenbait autoreek ikasleek ahots altuz hitz egitea gomendatzen dute. Hitz egiten duten bitartean esaten dutena kontrolatzen dutelako.

*1.1.3. Jerome Brunner(1915eko urriaren 1an, New York): Ikusi, Erreferentziak (Monografias, 2010) eta (Jerome, Bruner, HIK.HASI. 2003)*

Psikologo estatubatuar hau, XX.hamarkadako autore ezagunetarikoa da. Dukeko Unibertsitatean eta Harvard Unibertsitatean egin zituen ikasketak eta azken honetan, Ikerketa Kognitiboaren akademia sortu zuen. Ikerketa Kognitiboaren sortzailea izan ez bazen ere, honen bultzatzaile nagusienetarikoa izan zen. Hau 1960an izan zen eta urte berean, "Proceso de Educación" liburua argitaratu zuen. Brunnerrek Piaget eta Vigosky eduki zituen erreferentziatzat.

Egile honek hainbat kontzeptu edo ideia landu bazituen ere, hona hemen bere lanetan esanguratsuak edo ezagunenak izan zirenak:

1. *Ikaskuntza*: Brunnerren uztez, ikaskuntza mailetan edo sailkapenean egituratzen da. Maila hauek informazioa aukeratuz, proposamen berriak emanez, laburbilduz, antolatzea eta hipotesi hauen egiaztapenean oinarritzen dira. Ikastunak direnak, errealitatearen aurrean, berezkoak diren kategoriak moldatzen eta berriak eraikitzen dituzte. Ikaskuntza honetarako aurretik haurrak duen egitura Kognitiboak asko baldintzatzen du, honekin haurrak bere esperientzien esanahia ulertu eta antolatu dezakeelako. Ondorengo arauen bidez osatu daiteke kategoria bat: 1- Partaideen oinarrizko ezaugarriak zehaztea (oinarrizko osagaiak barne hartuz). 2- Haien oinarrizko osagaiak nola integratuta egon behar diren azaltzea. 3- Partaide bat kategori batekoa izateko, tolerantziatzko mugak zehaztu behar dira. Kategoria hauekin erlazionatuz, egileak, bi prozesu ezberdintzen ditu: 1-“Concept Formation” (kontzeptu ezberdinak ikastea, 0/14 urte) eta “Concept Attainment” (maila bat mugatzen dituen propietateak identifikatzea, 15 urtetik aurrera).

2. *Irudikapen moduak*: Gizakia errealitatean eta baita eredu mentaletan, Brunnerrek 3 modu ezberdintzen ditu:

- a. Irudikapen Enaktiboa (Berehalako erreakzioaren irudikapena kontsideratzen da eta lehenengo urteetan suertatzen da, Piageten fase sentso-motorrean bezala).
- b. Irudikapen Ikonikoa (Irudi edo espazio eskemaren bidez gauzak irudikatzean datza, nahiz eta irudikatutako gauzarekin erlazioa eduki. Ez da hautazkoa).
- c. Irudikapen Sinbolikoa ( Irudikatzen den gauzarekin ez du erlaziorik, hautazko sinboloa da).

3 eremu mental hauek, garapenen kognitiboan jarduten dute baina era paraleloan. Hau da, bat ematen denean besteak ere ematen dira.

3. *Instrukziozko teoria baten alderdiak*:1- Ikaskuntzarekiko alde aurretiko jarrera, 2- Ikasleak ahalik eta hoberen barneratuta izan dezan, ezagutza multzo bat estrukturatzeko modua,3.- Material bat aurkezteko modu eraginkorrenak, eta 4- Sarien eta zigorren naturaltasuna
4. *Hezkuntza inplikazioak*: Hauek izango dira Brunnerekin hezkuntzan eta pedagogian eduki dituen teorien inplikazioak:
  - a. Aurkikuntzaren ikaskuntza: Irakasleak haurrak motibatu behar ditu, haurrek kontzeptuen arteko erlazioak eta proposamenak egiteko.
  - b. Elkarrizketa aktiboa: Irakaslearen eta ikaslearen arteko elkarrizketaren beharra.
  - c. Elkarrizketaren formatu egokia: Ikaslearen egitura Kognitiboaren arabera irakasleak bere elkarrizketa forma moldatu behar du.
  - d. Curriculum kiribila: Curriculum kiribila behar du izan, hau da, aldizka kontzeptu berdinak landuz eta gero eta gehiago sakonduz. Horrela haurrak, bere irudikapen mentala aldatuz joango da etengabe.
  - e. Estrapolazio eta hutsunez beterik: Heziketa hutsuneekin diseinatu behar da, horrela ikasleak betetzen joateko.

Egitura, lehendabiziko gauza: Lehenik eta behin, ikasleari ikasten ari denaren egitura azaldu behar zaio eta gero, irudietan arreta mantendu.

Brunnerrek Hezkuntza prozesuan ere lan egin zuen eta esan bezala liburu bat argitaratu zuen 1960an. Honek bost gai nagusi ateratzen ditu, zeinek AEBtako politikan eragin handia izan zuten: 1-Ikastearen paperaren egitura eta nola izan daitekeen ikaskuntzaren erdigunea, 2-Ikasteko prestakuntza, 3-Has gaitzeen hipotesi batekin, 4-Pentsamendu intuitibo eta analitikoak, eta 5-Ikasteko arrazoiak

*1.1.4. Chomsky (Philadelphia, Pennsylvania, AEB, 1928ko abenduaren 7a): Ikusi, Erreferentziak (Revista Digital "Investigacion y Educacion", 2004) eta (Cetro Virtual Cervantes, 2000).*

AEBtako hizkuntzalari, filosofo, zientzialari kognitibo eta aktibista, Massachusettsko Teknologia institutuko irakasle emeritua da, eta XX.mendeko hizkuntzalari garrantzitsuenetariko bat. 1957an “Syntactic Structures” lanean, “gramatikala sortzailearen” lehen teorilaria izan zen. Sintaxia hizkuntzen ikerkuntzaren erdian ezarri zuen eta jakintza honek erabateko iraultza ekarri zuen.

Egile honen hizkuntzalaritzak, norbanakoak hizkuntzaz jabetzeko dugun bideari buruzko teoria berri bat aurkeztu du. Bertan, hizkuntzaren sakoneko egitura eta oinarriari azalpena bilatu nahi die. Hizkuntza ikuspegi Innatista batez begiratzen du, hau da, hizkuntza gizakiaren jaiotzeko gaitasuna dela dio eta gramatika giza sistema kognitibo bereizitza hartzen du. Esan bezala, hizkuntza gizakiaren burmuinaren funtsezko ezaugarria da eta gizaki orok sortzez duen zerbait. Hau horrela ez balitz dio autoreak, oso zaila izango litzatekeela ulertzea haurrak bizpahiru urteko epe batean, hizkuntza bezalako ezagutza sistema bat, ahalegin berezirik gabe bereganatzea.

Honetaz gain, “gramatika sortzailearen” ustez, hizkuntza guztiek eredu berari jarraitzen diote. Gramatika guztiek baldintza zehatz eta jakin batzuen azpian eraikitzen dira. Funtsezko baldintza unibertsal eta natural hauen (uztardura, kategoria isilak...) heinean hedatzen eta hazten da hizkuntza bat haurrengan eta horrela haurrak, hizkuntza baten (edo batzuen) azaleko ezaugarriak baizik ez ditu ikasi behar (hiztegia, arau jakin batzuk, eta abar).

Hizkuntzalari sortzaileek hainbat hizkuntzatan egin izan dituzten azterketetan oinarritu dira, teoria honen inguruko eztabaidak. Egileak berak egin izan ditu azterketa horiek eta handik bere argitalpenak atera dira.

*1.1.5. David Paul Ausubel (New York, 1918ko Urriaren 25a- 2008ko Uztailak 9a): Ikusi, Erreferentziak (Monografias, 2008), (La teoría del aprendizaje significativo en la perspectiva de la psicología cognitiva, 2008) eta (Teoría del aprendizaje significativo de Ausubel).*

Psikologo eta Pedagogo Estatuatu hau, konstruktibismoko egile garrantzitsuenetarikoa kontsideratzen da. Ausubelek Pensilvaniako Unibertsitatean



graduatu zuen 1939an eta bere ekarpen nagusiak ikaskuntzari eta psikologia eremuei dagokie.

Egilearen ustez, esperientziaren bidezko ikaskuntza eta esposizioaren bidezko ikaskuntza, biak eraginkorrak izan daitezke. Beraz, eskola ikaskuntza errezepzio eta esperientziaren bidez lortu daiteke, eta ikaskuntza hau esanguratsua edo memoristikoa izan daiteke. Ikaskuntza esanguratsuaren inguruan esan beharra dago, ezagutza berriak estruktura kognitibo bat lotzen zaizkiola. Hau lortzen da, ikasle batek ezagutza berriak zaharrekin erlazionatzen dituenean eta ikasleari ikusten duenaren inguruan interesa pizten zaionean. Ikaskuntza honen abantailak asko dira: Ikasitako informazioak denbora gehiago irauten du; ezagutza berriak zaharrekin lortzeko errazagoa egiten duen ikaskuntza da, estruktura kognitiboan dena argiago dagoelako; aktiboa da ikaskuntza ikasleak burutzen dituen jardueren asimilazioa zentratzen delako; Pertsonala da, ikaslearen baliabide kognitiboetan zentratzen delako

1.1.6. Joseph D. Novak (Amerikako Estatu Batuak, 1932): *Ikusi, Erreferentziak (Aprendiendo a aprender, 1988)*.

Hezkuntzalari Estatubatuar hau, Cornelleko Unibertsitateko irakaslea eta ikertzaile zientzialaria da. Ezaguna egin zen mapa kontzeptualen teoriaren garapenarengatik, 1970 hamarkadan. Novak, zientzia eta matematiketan graduatu zen 1952an Minnesotako Unibertsitatean, ondoren Hezkuntza Zientziak ikasi zituen 1954an leku berean ere. Azkenik Hezkuntza Zientzien eta Biologiaren gradu ondorengo burutu zuen 1958a. Novak Purdueko Unibertsitatean hasi zen klaseak ematen 1967a arte, baina ondoren Cornellgo Unibertsitatean joan zen Hezkuntza Zientziak eta Biologiako klaseak ematera. Honetaz gain, 1998tik aurrera Westeko Unibertsitatean (Florida) eta baita Nasarekin, Marina, CIArekin ere lan egiten du. Gainera, hainbat eskola, unibertsitate eta enpresetan aholkulari bezala dabil eta hainbat sari ere irabazi izan ditu: Docto Honoris Causa (Comahueko Unibertsitatea, Nuquen, Argentina, 1998), Doctor Honoris Causa (Nafarroako Unibertsitate Publicoa, Iruñea-Pamplona, España), Doctor Honoris causa (Urbino

Unibertsitatea, 2006) eta Gizarte Zientzien Presidenteentzako Kontseiluei hezkuntza zientzien inguruan egindako ekarpenengatik saria.

Novak lanik ezagunena, Hezkuntza ikaskuntzan, Hezkuntza ikasketetan eta ezagutzaren errepresentazioan zentratu zen. Ikerketa eta Hezkuntza gidatzeko, hezkuntza teoria bat garatu zuen, 1977an lehenengo aldiz argitaratutakoa eta 1998an eguneratua. Bere azkeneko lana "Learning, creating and Using Knowledge: Concept Maps as Facilitative Tools in Schools and Corporations (Routledge, 2010)", non hezkuntza herramienta bezala kontzeptu mapen garapena lantzen dituen, CMapp eta internet eta beste baliabideekin batera, honekin hezkuntza eredu berri bat sortzeko.

1970ko hamarkadatik Novak eta bere taldeak, Cornelleko Unibertsitatean Kontzeptu Mapen teknika garatu izan dute. Ondoren, zientzia arloan ikaskuntza esanguratsua lantzeko Kontzeptu mapen teknika erabilia izan da eta beste ikasgaietan, hala nola, hezkuntza, gobernu edo enpresetan dauden talde eta pertsonen ezagutza irudikatzeko ere erabilia. Kontzeptu Mapen Konstruktibismoa dute oinarritzat, zehazki, ikasleek ezagutza aktiboki eratzen duten Konstruktibistetan. Novak lana, David Ausubelen Teoria Kognitiboan oinarritzen da.

Ikaskuntza teoriari dagokienez hauek izan dira autore garrantzitsuenak. Askoren artean hauek aukeratu izan ditut, nire ustez, *Haur Hezkuntzaren* eta batez ere, *Kanpo Espazioaren* inguruan ekarpen gehiago eduki dituztelako. Haur Hezkuntzari dagokiolarik egile hauek, haurraren barne prozesuari eta kanpo eremuak bere garapenean duen eraginari, garrantzi handia ematen diote. Lehenik eta behin, Piaget eta Brunnerrek haurraren garapena estadio edo faseetan banatu zuten eta honekin haurraren prozesua ulertu ahal izan dugu. Bigarrenik, Vigoskyren planteamendua eta honen *garapen hurbileko eremuaren* teoriak, haurrak inguruan duen eremuarekin eduki dezakeen interakzioari ematen dion garrantziagatik. Honek haurraren garapenaz aparte, haurra pertsona sozial bat bezala ulertzen du, zeina ingurunea aldatzen denean bera ere aldatzen den. Azkenik, Ausubel eta Novak teoriak, nahiz eta

Konstruktibismoko egileak izan, haurrak informazioa bereganatzeko eta antolatzeko duen gaitasunaren inguruan lan egin zutelako

*Kanpo Espazioaren* trataeran egile hauek esanguratsuak direla esan genezake. Esan bezala, egile hauen ustetan, ingurunearekin interakzioan egoteak, haurren garapen prozesuan baldintzatzen du. Haurren ingurunea, bai *Kanpo Espazioaz* eta bai eskola *Barneko Espazioaz* osatuta dago. Azken eremu honetan, barne eremu moldatu batean agertu ezin diren beste milaka esperientzia aurkitu ditzake haurrak. Hau da, kanpo espazioa, hezkuntza eremu bat bezala ulertua da.

## 1.2. Haur Hezkuntza Teoriak

*1.2.1. Maria Montessori (Chiaravalle, Italia, 1870- Herbeherak, 1952): Ikusi, Erreferentziak (MONTESORI LANA.pdf-Nafarroako Unibertsitate Publikoko Haur Eskolen Antolaketako ikasgaia).*

Maria Montessori, Italian jaio zen, familia burges, liberal eta erlijioso batean. Bere bizitzako lehenengo urteetan Erromara joan zen bizitzera familiarekin eta 13 urte zituela kalifikazio bikainak atera zituen eta bai matematiketan bai natur zientzietan nabarmentzen hasi zen. Medikuntza ikastea erabaki bazuen ere azkenean, honekin batera Filosofia eta Natur Zientziak ikasi zituen. Garai hartan sexuarekiko zegoen jarrera zela medio, sendagile izatea ukatu zioten eta adimen urriko hurrekin lanean jardun zuen. Haur horiekin lanean zegoela konturatu zen, haur horiek haien ahalmenak eduki eta garatu zitzaizkela, eta bestelako bizitza bat merezi zutela. Haur horiekin hasi zen bere teoria pedagogikoak lantzen.

Horrela, 1907an “Casa dei bambini”(Haurren etxea) izeneko bere eskola berria sortu zuen Erroman eta han jardun zuen denbora luzez. Honen ideia sortzaileen bidez, mundu osotik ibili zen bere teoria pedagogikoak zabaltzen. Izan ere, Herbeheretan hil zen bere ideiak zabaltzen hasi zen bitartean.

Montessoriren printzipio pedagogikoek munduari buelta eman zioten eta milaka pertsoneri heldu zitzaizkien. Bere metodoaren oinarritzko helburua, haur bakoitzak

bere potentziala askatzeko gai dela, ingurune estrukturatu batean baldin bada. Ondorengoak dira bere printzipio nagusiak:

1. *Behaketari dagokion prestakuntza, lehenengo hautemate gaitasuna eta ondoren kontzeptualizazioa:* Printzipio honek dio, Montessori metodoarekin hezi den haurrak, gauzak azkar hauteman eta sailkatu egingo dituela. Honekin, diskriminazio sensoriala zehatzak eta erabaki intelektual abstraktuak garatuko ditu.
2. *Prestakuntza programatu, praktiko, perfektu eta zehaztua:* Sentsorialak, intelektualak eta motorrak diren ariketak zailagoak egingo ditu Montessorik.
3. *Banakotasuna eta auto-prozesuak:* Haur bakoitzak bere erritmo naturala izango du bizitzan, hau da, bere bilakaera propioa. Programa kronologiko baten inposaketak, honen hausketa sortuko du eta honek, haurraren porrota ekar dezake.
4. *Mugimendua, aktibitatea eta lana:* Montessorik, "Hezkuntza aktiboa" eskatzen du, hau da, haurrari formakuntza sensoriala ematea efizientzia hautemangarria lortzeko. Muskuluak hezteko mugimendua eta lan intelektuala dakarren hezkuntza da. Honek, haurraren lan egiteko ohiturak eta ordena hautematea ekarriko du.
5. *Askatasuna eta naturaltasuna:* Printzipio honek, haurraren naturaltasunak banakotasuna adierazten duela dio. Gehiegizko arauak haurren prozesua mugatzen dute eta akatsak edukitzea zerbait ona bezala ikusi behar dela dio. Gainera, haurra izan behar da bere jarduera edo ekintzak erabaki behar dituen bakarra, honetan datzalako askatasunaren ideia.
6. *Giro egituratua:* Montessorik giroa edo ingurua, haurra estimulatuko dituen eta barneko beharrak asetuko dituen materialen bidez graduatuko du.
7. *Epealdi sentibera:* Haurra bere lehenengo 6 urtetan, erabakigarriak diren epealdietatik desberdinetatik igaroko da. Urte hauetan, ingurugiroan estimuluak asimilatzen eta antolatzen jardungo da haurra.

8. *Erritmoa. Oreka. Ordena*: Bizitzaren prozesuak bezala, gizakiak ere, ordena eta jarioasuna behar du. Gizakiak daukan erritmoak, koherentzia eta oreka beharrezkoak ditu.
9. *Aurkikuntza eta garapena*: Haurra laguntzen dute giro berriak dominatzeko eta gizakietan bihurtzeko.
10. *Haurra etorkizuneko pertsona bezala*: Haurraren potentzian dagoen guztiari jarri behar zaio interesa eta modu batean izango den pertsonan atentzioa ezarri, bere eskubideak errespetatzen diren bitartean.
11. *Eredua izango den irakasle berria*: Montessoriren printzipio honen arabera, irakasle berria, gaitasunetan eta espirituan prestatuta egon behar da eta haur bakoitzaren ikaskuntza errespetatuko du, bera behatzaile arduratsua den bitartean. Honekin batera, irakaslea haurrarekin komunikatuko da eta bere garapen modu eraginkor eta sormenezkoan programatuko du.
12. *Ezagutu, maitatu eta zerbitzatu*: Printzipio honetan pertsona libreaz hitz egiten du eta pertsona mota honek, meditazioa orekatu eta interes kolektiboari erreparatuz, hobekuntza indibidualetan pentsatu.

1.2.2. *Loris Malaguzzi (Correggio, 1920ko otsailaren 23a - Reggio Emilia, 1994ko urtarrilaren 30a): Ikusi, Erreferentziak (Loris Malaguzzi, Escuelas reggianas, 2009) eta (Educacion Alternativa, 2012).*

Pedagogi Italiar hau Ubinoko unibertsitatean lizentziatu zen eta 1940an Lehen Hezkuntzako eskoletan klaseak ematen hasi zen, Reggio Emilian. 1945an proiektu batean sartuta zegoela, Reggio Emilia ondoko herrixka txiki batean, haur eskola bat sortzea erabaki zuen. Ondorioz, auzo horretan eskola bat sortu bezain pronto, inguruko auzo proberenatarikoetan gauza bera egiten hasi ziren, denak auto-administratuak. Bost urte beranduago, Erromara itzuliko da psikologia karrera amaitzera eta hor Reggio Emiliako Udaleko psikologia medikua bihurtuko da, haur behartsuei laguntzeko. Horrela, lehenago zegoen zentroan lan eginez eta autogestionatuz.

- *Reggio Emilia:*

Eskola hauen *helburu nagusia*, eskola atsegin, aktibo, asmatzaile, bizigarri, dokumentatua eta komunikagarria izatea da. Leku bat non, ikerketak, ikaskuntzak eta hausnarketak eta bai familiak, hezitzaileak eta haurrak elkartzen diren.

Eskola hauen *metodologia*, haurren ahalmenean, gaitasunean eta kuriositate eta interesa daukatela sinestean oinarritzen da. Haurren gaitasunei ematen zaien enfoka beti ere bere ingurunean dauden faktoreak kontuan hartu behar dira. Hala nola, familia, hezitzaile, eskola ingurunea, komunitatea eta gizarte osoa. Metodologia honen helburua, ingurune esanguratsuak eta anitzak eratzea da non haurrak, aukera anitzak eta hezkuntza egoerak aurkitu ditzan eta esperimentatu. Honekin helduak ikusi ahalko du bertan geratzen diren egoera sozial eta harremanetan dauden, rol eta elkarreraginak.

Bai *gurasoen eta bai irakasleen* elkarreragina beharrezkoa da. Lehenengo hauek hauen seme-alaben hezkuntzan era praktikoa batean murgildu behar dira eta komunikazioa zein bertan egiten denaz dokumentatzea beharrezkoa ikusten da. Irakaslearen papera, egunerokotasunean eta etengabe formatzean datza, gehiago jakitearen grinarekin bat datorrena. Formakuntza eta ikerketak hausnarketa anitzak ekarriko ditu eta honek ekintzen eraldaketak.

Eskola hauek ez dute ez Curriculum ezta programaziorik ere, eskola hauek haurrekin biziz, lan egiten eta berriaren zain lan egiten dute. Nora doazen ez jakiteak ikerketara bultzatzen ditu, haurren ideiei, galderei eta arazoei erantzunez. Honetarako, konfiantzazko ingurua eta seguritatea lortu behar da helduaren eta haurren artean. *Proiektuak*, irakaslea eta hurrek, esperientzietan, guneetan eta tailerretan, dauden material, herramienta eta baliabide ezberdinen esplorazioan, pentsamenduetan, kreazioan eta erabileran oinarritzen dira.

Infrastrukturari dagokionez, ikasleen barnean objektu handi eta txikiak aurkitu ditzakegu, bai hezitzaileek eta bai guraso edo familiek asmatutakoak, merkatuan aurkitzen ez direnak. Hormak haur zein helduen esposizio motz edo

luzeak ezartzeko erabiltzen dira. Paretak zuriak dira, ikasleei lasaitasuna emateko, ez dira inolaz ere gauza askotarikoez kargatuak egoten. Hezitzaileek talde lanean jarduten dute eta proiektuak familia zein lankideekin egiten dituzte. Beraz, eskolan lan egiten duten pertsona guztiek astero bilera bat egiten dute egindako edo egin beharreko proiektu batez hitz egiteko.

1.2.3. *Emi Pikler (1902 Biena, Austria-1984, Budapest, Hungaria): Ikusi, Erreferentziak (Grupo Pikler Loczy, la asociacion de matestros Rosa Serrat, 2007).*

Pediatra austriar honek bere lan profesionala Hungarian burutu zuen eta bertan, familiako pediatra bezala lan egin zuen eta 30 urte baino gehiagotan zehar, Loczy haur humezutz eta abandonatuak hartzen Institutuko zuzendaria izan zen.

1968-69an OMS-ik Loczyinen egon ziren haurren garapenaren inguruan ikerketa bat ordaindu zuen. Horietako haurrek ez zituzten Ospitalera joateko arazoak eduki eta denak haien heldutasunean gizartean egoki integratu ziren. 1970an Loczy Hungariako Haur Etzeetako Metodologia Nazionalen Institutua bilakatu zuen eta honek ere mediku, erizain, psikologo, pedagogo, hezitzaile eta zaintzaileentzako formakuntza ikastaroak ere eman zituen. Gaur egun ere formakuntza honek jarraitzen du eta hezkuntza arreta eta zainketarekiko erreferente mundiala da. Honetaz gain, Hungarian bertan ere Loczy Haur Hezkuntzarekiko (0-3 urte) erreferente nagusia da.

Piklerrek hainbat liburu eta artikulu asko argitaratu ditu hizkuntza ezberdinetan. Esaterako: “Que saber hacer tu hijo” (1938) edo “Moverse en libertad. Desarrollo de la motricidad global” (1969).

Pikler-Loczy Institutua, Budapesten, gaur egun, Haurrendako Loczy Fundazioak, bere pedagogia zehatza dauka eta hauek dira bere printzipioak:

- *Autonomiaren balioa:* Aktibitate autonomoa, jokia eta motrizitate librearen garapenaren bidez lortzen dena.
- *Erlazio afektibo pribilegiatuaren balorea:* Zainketa fisiologikoen bidez.

- *Estabilitatearen eta zainketen etengabeko balorea*: Hezkuntza erreferentearen bidez landua.
- *Haurrak bera eta bere inguruaren kontzientzia edukitzea*: Errespetuaren eta haurraren iniziatiba egunerokotasunean.

1.2.4. *Federico Froebel (1782-1852): Ikusi, Erreferentziak (Breve historia de la Pedagogia, Educacion Contemporanea, 2010) eta ( Centro de Formacion Integral, Corrientes Pedagogicas y Psicologicas, 2010).*

Pedagogo aleman honek Haur Instituzio inpusatu eta sortu egin duen eta honek garrantzi handia izatea lortu zuen hezkuntza mailan. Instituzio hau Kindergarten edo "Jardín de Infancia" bezala ezagutua izan da.

Kindergarten sortu zen garairako, hezkuntza ulertzeko planteamendu didaktiko eta metodologikoa izan zen. Froebel, Pestalozzi eta Rosseau-ren (Pedagogia Natural) korrante pedagogikoetan oinarritzen zen eta honetaz gain Schelling-en obraren presentzia ere nabartzen da bere lanean. Honekin batera, Froebelen "Kindergarten" metodoaren oinarri nagusienak hurrengoak lirateke:

- *Paidocetrismoa*: Metodo honen aurreko teoriak zioten ikaslea izan behar zela metodologiari egokitu behar zena. Baina honek sistema pedagogikoen oinarrietan eragin handia eduki zuen eta ideia alderantzikatu zuen. Lehenengo aldiz, Haur Hezkuntza printzipio propioak dituen etapa izanen da eta ez heldu izatera heltzeko prozesua. Hezkuntzaz beraz, haurren behar eta garapen naturalera moldatu behar ditu metodologia eta materialak.
- *Naturalismoa*: Hezkuntza eta natural elkarrekin doaz, hezkuntza kontzeptuan eta honen adibide nagusiena, haurra izaki naturala izanik berezotasuna behar duela adierazten da.
- *Baloreen Hezkuntza*: Garapen intelektualaz aparte Froebelek garapen moralean ere interes handia jarri zuen. Hau, jokoaren bidez lantzen da eta momentu horietan hezitzaileak erregulatu eta formulatu ditzake jarrera positibo beharrezkoak, bizitzan ditugun esperientziendako.



- *Aktibismoa*: Zientziaren eta jarrera sistematikoarekin aktibitate hitza azaltzen da Froebelen pedagogian. Egilea “eskola aktiboaren” bultzatzailea izan zen eta handik aurrera uste izan da, “akzioa” haurren garapenerako beharrezkoa den bezala. Haur jarduera hauek lantzeko, edozein jokoaren bidez gidatu daiteke.
- *Material Manipulatiboa*: Froebelek material manipulatio bat garatu zuen ondoren, “dones” bezala ezagutua izan dena eta bertatik ondorengo haur jokoak atera egin dira: Bolak, zilindorak, kuboak,... Gaur egun eskoletan daukagunak. Egilearen ustetan, jarduera batzuen exekuzioa, esaterako pikatua edo modelatua, haurren trebetasun manipulatioa garatzeko balio du.

1.2.5. *Ovide Decroly (1871 Renaix, Belgica-1932, Uccle): Ikusi, Erreferentziak (Formacion Integral, Corrientes Pedagogicas y Psicologicas, 2010).*

Pedagogo, psikologo, mediku eta hezitzaile belga hau testuinguru ireki eta zientziaren aldetiko sentsibilitatean hezia izan zen. Medizinan diplomatu zen Bruselaren 1897an eta Berlinera eta Priserara bidaia tu zuen eta bertan neurologia eta psikiatria ikasi zituen.

Belgikara bueltatu zenean, behar bereziko haurrak heztera sartu zen eta 1901an Bruselaren bere zentro hezitzailea sortu zuen: “*L’école d’Enseignement Spécial pour Enfants Irréguliers*”. 1907an *École de l’Ermitage* Institutua sortu zuen (“*École pour la vie par la vie*”) eta bertan, behar bereziko haurrekin frogatutako metodologiak eta materialak erabiltzen hasi zen. Hasieran lehenengo ziklora atxikita zegoen eskola, haur eskola, bigarren hezkuntza eta derrigorrezko hezkuntzaren ondorengo zikloak ere sartu zituen. Urte hauetan zehar, bere meritua handiena lortu zuen globalizazio fenomenoaren inguruan. Decroly, haur funtzionamendu intelektualeko eta pertzepzioko fenomeno esentziala zela demostratu zuen eta ondorio horiek didaktika eremura eta eskola antolamendura eramatea lortu zuen. 1920an, Bruselaseko Unibertsitatean, psikologia eta hezkuntza higieneko irakasle titulua jaso zuen .

Decroly-ren hezkuntza akzioa, bi oinarritzko printzipioetan zentratzen da:

- *Globalizazio printzipioa*: Haurren aktibitate mentalaren garapena esplikatzeko duen printzipio psikologikoa. Printzipio honek ustetan pertzepzioa eta beste funtzio mentalak, modu sintetikoan eragiten dutela dio. Hau da, elementu osoen bidez parte hartzen dute ez parteen bidez. Prozesu mentala hau hiru estadioetan banatzen da: 1- Errealitatearen pertzepzio sinkretikoa, nahasi eta desberdindu ezina. 2- Parteentzako eta osagaien analisia. 3- Analisiaren sintesia. Printzipio honek eragin zuzena dauka didaktikan, beharrezkoa delako psikologiarekin eraginetan daudenak ikaskuntzan aplikatzea, eta haurren pertzepzio forma.
- *Interes printzipioa*: Decrolyren ustek irakaskuntza “interes zentroetan” antolatu behar da, haurrei interesgarriak egiten zaizkienak. Ideia hauek haurrak motibatu behar ditu ikaskuntzara eta interesa beharretatik datorrenez, beharrezkoa da haurren interesak ezagutzea, “interes guneak” antolatzeko. Haurren “gune” bakoitzak ikaskuntza aktibatzen du eta bertan haurrak errealitatea forma global, bateratu eta oso batean ezagutzen du eta bertatik ikasi.

Haur Hezkuntzari dagokionez, egile hauek aukeratu dituzten, gaur egun ezagutzen dugun gizartean eragin gehiena egin dutenak direlako. Egile hauen ekarpenak ezagutzen ditugun Haur eskola eta Haur Hezkuntza zikloan eragin handia izan dute eta Hezkuntza beste modu batera ulertzeko eta begiratzeko ideia sortu dute.

Egile hauek gehienek konpartitzen duten ideia, materialen manipulazioa eta esperientziaz da. Esperientziak edo egoerak sortu behar direla eta haurrek egoera hauek ikasten dutela. Giro egituratu honetan, autonomiak ere garrantzi handia jasotzen du eta beraz, irakaslearen papera gehien bat “laguntzaile” bezala ulertzen dute. Irakasleak ingurunea eta egoerak sortu behar ditu, hezkuntza giro bat. Ikaskuntza esanguratsuan sinesten dute. Ikaskuntza mota honek haurren interesean dauka jatorria. Haurrak interesa baldin badu esperientziaz hasiko da, eta honek, bere hipotesi eta ideietara bideratuko du.

Hezkuntza eredu berri hauek ere eragin handia izan dute Natur Zientziaren inguruan. Haurrek, zientzia eremuan, esperientzia berriekin ikastea eta honekin ikaskuntza

esanguratsu bat edukitzea da egile hauen ideia nagusia. Natur eremu batean non bertako materialak ez estrukturatuak diren, hurrek egoera erreal eta naturalak ikertzen dituzte. *Barne Espazioa eta Kanpo Espazioa*, hezkuntza eremuak diren bezala, ingurune aske eta hurbil bat bezala ikusten dute. Bi hauen artean Hezkuntza eremua edo *Ikaskuntza Komunitatea* sortzen dute.

### 1.3. Zientziaren erreferentziak

*1.3.1. Rosa M<sup>a</sup> Pujol: Ikusi, Erreferentziak (Didáctica de las ciencias en la educación primaria ,2007) eta (Curriculum Vitae de miembros de comisiones para concursos de acceso a los cuerpos docentes universitarios,2007).*

Irakasle, biologoa eta pedagogian doktoretza daukan, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Zientzia Esperimentalen Didaktiken irakaslea da. 2008an Hezkuntza Fakultateko Dekanoa izendatua izan zen, Unibertsitate berdinean. Bere bizitzan zehar hainbat seminario eman ditu Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleei, Zientziaren hezkuntza eta Curriculumeko zeharkako alderdien erlazioak ulertarazteko. Gaur egun, COMPLEX ikerketa taldean dihardu, paradigma konplexu baten perspektibatik zientziaren hezkuntza diseinatu, aplikatu eta analizatu, Hiritartasunean eta Unibertsitate mailan aurreratzeko. Pujolen ibilbide luze honetan hainbat liburu eta artikulu plazaratu ditu eta batzuetan ere sariekin konpentsatu zaio.

Bere argitalpenetatik esanguratsuena eta ezagunena *Didáctica de las ciencias en la educación primaria (Ed: Síntesis, 2007)* izan da. Bertan zientziaren didaktika beste modu batera ulertzeko joera azaltzen da, non zientzia batek erakusten duen nola: Pentsatu, egin, hitz egin eta erregulatu.

1. *Zientziak “pentsatzen” erakusten digu:* Pentsamendu zientifikoa prozesu konplexua izan da beti eta giza pentsamenduaren eboluzioa. Zientzia, mundua ulertzeko interesetik sortu zen, subjektuaren independentziaz. Zientziaren motorra, gizakiaren galderak formulatzeko gaitasunean zentratzen da eta honen ezaugarriak bere objetibotasuna, metodoa, ikuspuntu arrazionalista eta errealistatik begiratzea.

Haien bizitzan zehar, pentsamendu zientifikotik at, kausa-efektu ideiak ulertzeko erabiliak izaten dira. Baina honetaz gain gizakia ere, egoera edo arazo bati aurre egiteko, “analisi, ebaluazio eta erabakien hartzea” erabili dezake. Hau dena “pentsatzea” da. Eta barneko prozesu bat martxan jartzea da non errepresentazio gaitasuna, datuen antolaketa eta erantzun aukeratua sartzen diren.

Baina azken finean, haurrek haien pentsamendua eta munduko egoera ezberdinak ulertzeko, modeloak edo esperimentazioa behar dute. Gizakiok daukagun oinarrizko mekanismoa “pertzepzioa” da eta hau erabiltzen dugun: ulermena, errekonozimendua eta esanahia jartzea aurkitutakoari. Pertsona guztiek hau egiteko modu ezberdinak dauzkagu, kulturaren eta egoera pertsonalaren arabera.

Haurren pentsamenduak edo ideiak garatzen dituzte haien inguruan dituzten estimuluekin eta honekin haien esanahiak eratzten eta estrategiak barneratzen dituzte. Haurren pentsamenduaren inguruan ideia ezberdinak izan dituzte egile anitzek, ikerketa askotan. Ikerketa horietan gizakiok informazioa prozesatzeko ditugun mekanismoak agertu ziren eta honekin ideia alternatiboak hobe ulertzen erakutsi digu. Beraz, ikasleak bere ideia alternatiboak behar ditu hurrengo ezagutza zientifikoak modu esanguratsuak ulertzeko. Ideia hauek ez dira baztertu behar, hauekin ezagutza zientifikoa osatzen delako, hauek ideia eta kontzeptu egokiez ordezkatur. Orregatik beharrezkoa da aurkitzea momentu bat haurrek haien ideia hauek aurkezteko eta esplikatzeko.

2. *Zientziak “egiten” erakusten digu:* Galderak eta hipotesiak formulatzea, behatzea, konparatzea, antolatzea, identifikatzea, aldagaiak identifikatzea, esperimentuak diseinatzea, erantzunak kontrolatzea eta interpretatzea, jarduera garrantzitsuak dira zientzien eta zientzien hezkuntzaren arloan. Askotan aske uzten diren egoerak, desordenatuak diruditenak, ikaskuntzarako aukera esanguratsuak izan daitezke. Egoera horiek askotan, zientziarekin erlazio eraginkor eta gertu bat edukitzea bultzatzen du eta honen ikaskuntza esanguratsurekin lotzen. Honekin ikasleek gaitasun asko lortzen dituzte,

esaterako. Intelektualak, analisirako gaitasuna, orokortzerako gaitasuna, pentsamendu kritikoa, imajinazioa, erabakiak hartzeko gaitasuna.

“Egitearen” lehenengo pausoa behaketa on bat antolatzean datza. Behaketa ez da soilik ikusten denaren eta dituen parteen diseinuan eta esanahiena murrizten. Behaketa on bat, ikusten denaren eta bakoitzak duen jakintzaren erlazioetan zentratzen da eta honekin kontzeptu edo ezagutza berri baten formulazioa edo eraiketa dakarrena da. Hau da, behaketa bat pasibotik aktibora pasatzea. Bigarren pausoa, konparatzea, sailkatzea eta identifikatzea izaten da eta honetan, ikasleek haien egunerokotasuneko egoerekin egin behar dute. Jarduera hauek guztiak pertzepzioarekin gaizki erlazionatzen dira, jarduera hauek pentsamenduarekin erlazionatu behar baitira, behaketa baten antzera.

Behaketa eta antolaketa honetan beti galderak eta hipotesiak sortzen dira eta hauekin batera, erantzunak bilatzen saiatzen gara. Hipotesiak bilatzen dira, aldagaiak zehaztu, arazoa konprobatu, datuak jaso eta datuak azaldu Galdera barri batek, ezagutza berri bat ekartzen du eta honek berarekin beste galdera gehiago. Ezagutza beti konektaturik dator eta sare handi bat osatzen du: Ezagutza.

“Egite” hauek gela barruan, zientzia tailer edo laborategi baten, natura ateraldi batean edo museo bisitaldi batean egin daitezke. Zientzia gune askotan sortu edo egon daitekeelako.

3. *Zientziak “hitz egiten” erakusten digu:* Haur eta Lehen Hezkuntzak haurrari komunikaziorako tresnak eta egoerak helarazten dizkio. Etapa hauetan oso garrantzitsua da ideia propioak azalaraztean eta erlazio eta ezagutza berriak eraikitzea. Honekin haurrak eguneroko erabiltzen duen hizkuntzaren eta zientzia lengoaiaren ezberdintasunak ulertzen saiatuko da.

Beraz, egokiena, irakasleak gutxi parte hartzen duen eta ikasleek bakarrik hitz egiten duten klasea izango litzateke, ezagutza zientifikoa haien artean sortze delako. Gainera, elkarrizketa batek lehenagotik dauden ezagutzen eta ezagutza

berrien arteko erlazioak finkatu, pentsamendu kritikoa sutatu eta ideia berriak errebisatzea lortzen du.

“Hitz egitea” modu askotara ulertu daiteke eta horitako bat “marraztea” izango litzateke, bertan haien ideiak irudikatzeko. Beste bat “testuak” idaztean datza zeinak, koherentzia orokor bat eduki behar duen eta beste egunerokotasuneko “testuetatik” berezitu. Zientzian erabiltzen diren testuak, objektiboak, antolatuak eta deskriptiboak izan behar dira, definizio zehatz bat lortzeko. “Hitz egiteko” beste hainbat modu ere aurki ditzakegu, esaterako: Jokoa edo teknologia berriak.


4. *Zientziak “erregulatzen” erakusten digu:* Zientziaren hezkuntzak beti autonomiaren garapena bultzatu behar du. Ikasleen ikaskuntza sistema eraikitzeko, haien arazoak identifikatzen eta ikasten ari direnaz kontzientzia hartzen saiatu behar dira. Honetarako, ikasleek dituzten helburuak erregulatzen, egin behar dutena planifikatzen eta nola ebaluatuko duten jakin behar dute.

Egile hau bere lan eremuan aditua den heinean aukeratu dut, lan honen gaiaren ardatz gisa. Natur Zientzien gaiaren aldetik, *Kanpo Espazioan* arituko naizenez, egile honen teoria nagusia egokia iruditu zait. Hala eta guztiz ere, bere teoria, Haur Hezkuntzaren beste eremuetara ere egokitu daiteke. Bertan, egoera ezberdinak esperimintatzean azaltzen diren 4 fase edo egoera azaltzen dira: *Pentsatzea, Egitea, Hitz egitea, Erregulatzea*. 4 fase hauek *Kanpo Espazioko* edo beste edozein eremuetan azaldu daitezkeen egoeretan azaltzen dira. Beraz, egoera hauek ikertzeko haietan, egile honen teoria hau ardatz bezala ikusi daiteke.

Orokortzerako, azaldutako azken egile honen teoriak, aurretik azaldutako Ikaskuntza Teoriekin eta Haur Hezkuntzako Teoriekin bat datorrela uste dut. Egile guzti hauek, ingurunearen interakzioa beharrezkoa dela uste dute haurren garapena sustatzeko. Ingurune horretan, azaltzen diren egoera eta *esperientzien esplorazio* edo ikerketa landu dezake haurrak. Beraz, espazio hori, espazio egituratu bat izan behar da non, egoera horiek aurkitu daitezkeen. Gainera, *irakaslearen papera* “laguntzaile” paperean

ikusten dute, eta beraz, ekintzetan haurraren *askatasunean* eta autonomian sinesten dute. Autonomia honek, haurrak bere kabuz esperientziak ikertzearekin, egoera ezberdinak ulertzea dakar. Honi *Ikaskuntza Esanguratsua* deitzen zaio. Honekin bat, haur bakoitzak garapen ezberdina duen heinean, honen erritmoa errespetatu behar dela diote. Honetarako, denborari mugak kentzea sustatzen dute, *espazio aske baten denbora askea* behar dela diotenean.

Marko Teorikoa aztertu eta gero hainbat kontzeptu edo adierazle esanguratsu azpimarratu beharko genituzke. Egile hauen. eta haien teoriaren artean garrantzizkoenak edo haurraren garapenean eragin gehien dutenak direlako. Hauen eragina eta garrantzia ikusi ahal izateko eta ondorengo atalarekin harremana ikusteko, hurrengo kontzeptu mapa zehaztu dut. [Ikusi: Figura 1]



### 1.1rudia: Marko Teorikoan oinarritutako adierazleak

## 2. GARAPENA: GAUR EGUNGO IKASTETXEEN ANALISIA

Ondorengo atal honetan, daukagun galderari erantzuten saiatuko naiz. Bertan esaten zuen:

*“Bizi izandako edo ikusitako 3 eskola eta haien metodologia kanpo espazioari dagokionez, aztertu eta konparatu adierazle batzuen bidez, ondoren hobekuntzak proposatzeko”.*

Beraz, aurreko ataleko egileak kontuan izanda, 3 eskolen arteko konparaketa aterako da, *Kanpo Espazioari* dagokiona. Konparaketa hau egiteko adierazle batzuk kontuan izango ditut eta ondorengoak izango dira: *Irakaslea, askatasuna/gidatua, espazioa/denbora, esploratzea*. Adierazle hauek aukeratuak izan dira, aurreko atalean azaltzen ziren egileen teorien arabera. Bertan, egileen ikuspegitik, irakaslearen papera, espazio eta denboraren trataera, esplorazioaren inguruko ideia eta askatasunaren esanahia azaldu direlako. Lehenik eta behin adierazle hauen esanahia azaldu nahiko nuke, ondoren agertuko diren ikastetxeen analisia argiago izateko:

- *Irakaslea: Adierazle honek irakaslearen papera zein den zehaztea eskatzen du. Bertan, irakaslearen parte hartzea ze mailakoa eta ze motakoa den bilatzean datza, eta irakaslearen papera ze mailatan den “laguntzailearena”.*
- *Askatasuna/gidatua: Adierazle honek hezkuntzaren filosofia zen den ezartzea du helburu. Hezkuntza guztiz gidatu batetik, askatasun osoz betetzen den hezkuntzaraino doa. Ikastetxearen hezkuntza filosofia zein mailatan dagoen zehaztea da.*
- *Espazioa/denbora: Adierazle hauetan, bai denbora eta bai espazioarekiko trataera zein den ezartzea da. Denboraren aldetik, nola antolatua eta probestua duten zehaztea, eta espazioaren aldetik, hezkuntza eremu bezala nola ulertua eta erabilia den zehaztea.*
- *Esploratzea: Adierazle hau, Rosa M<sup>a</sup> Pujolen teoriak *Didáctica de las ciencias en la educación primaria* (2007) dioen bezala, 4 faseetan berezitu beharko litzateke: Pentsatzea, Egitea, Hitz egitea eta Erregulatzea. Adierazle honen egin beharra, fase hauek ikastetxeetan ze garrantzi ematen zaien eta nola lantzen*



*diren ezagutzea da. Esplorazioa, esperimentazioari ematen dio pauso bezala ulertu behar da eta honek esperientzia ezberdinak erakusten dizkigun bat bezala.*

Hauek kontuan izanda, eskola ezberdin hauek adierazle hauei ematen dieten trataera aztertuko dut.

Atal hau bi zatitan berezitu nahi izan dut. Hasteko, eskolen deskribapen bat eta ondoren, 3 eskola hauen arteko berezitasunak agertzen diren taula, adierazleen arabera. Esan beharra dago, ikastetxeei buruzko dokumentazioa, haien *webguneetatik* lortu dudan informazioarekin, bertan ikusi eta bizi izandakotik eta haiei buruz aurkitu ditudan artikuluekin osatu dudala. Beraz, ahal izan dudan heinean, dokumentazio egokia eta berrituarekin lan egiten saiatu naiz.

Oihanzabal ikastetxeko informazioa argitaratu zen: *Ikusi, Erreferentziak (Buldain, A.; Hoyuelos, A.; Nazabal, M.; Redin, A.; Santxo, G.; Velez, M. (2011/2012). Aprender en la escuela.) eta (YouTube. (2013-5-15). Bideoa, Buldain, A. Charla: Buscando otros caminos en la Educación Infantil).*

Buztintxuri ikastetxeari dagokionez, interneten aurkitu daitekeen haien Hezkuntza proiektutik atera izan dut informazioa: *Ikusi, Erreferentziak (Buztintxuri Ikastetxe Publikoa. Proyecto Educativo y Pedagógico.).*

Azkenik, El Martinet ikastetxearen deskribapena egiteko, bi aldeetatik atera dut informazioa. Alde batetik, haien ikastetxean egon ondoren eskuratutako liburua: *Ikusi, Erreferentziak (Escuela El Martinet. (2012 Ekaina). ...a fora).* Honetaz gain, interneten ere haien ikastetxeari buruz zegoen deskribapen batetan ere oinarritu naiz: *Ikusi, Erreferentziak (Centros Educación Navarra. Escuela El Martinet).*

## **2.1. Ikastetxeen deskribapena:**

Lehenik eta behin, eskolen azalpen txiki bat egin nahiko nuke haien hezkuntza ikuspegiaren eta *Kanpo Espazioaren* trataeraren inguruan, konparaketarekin hasi aurretik. Aukeratutako 3 eskolak hurrengoak dira. *Buztintxuri I.P (Iruñea, Nafarroa), El Martinet Escola (Ripollet, Bartzelona) eta Oihanzabal (Jaunsaras, Basaburua,*

*Nafarroa*). Ikastetxe hauek metodologia berritzaileekin lan egiten dute, baina haien artean modu ezberdin batera ulertzen dute *Kanpo espazio* hori.

### 2.1.1. Buztintxuri

Buztintxuri ikastetxe publikoa, Iruñeko Buztintxuri auzoan kokatuta dago eta 4 urte daramatza auzo horretako haurrak hezten. Ikastetxe honek bai Haur Hezkuntza eta bai Lehen Hezkuntzako lehenengo maila eskaintzen ditu oraingoz. Ikastetxe hau hasi zenetik, filosofia, nortasun propioa eta bakarra edukitzeagatik definitu da. Haien filosofia edo metodologia ondorengo ezaugarrietan oinarritzen da:

1. *Konprometitua: ondorengo baloreak bultzatzen dituena, Elkartasuna, elkarlana, kooperazioa, errespetua, berdintasuna (generoa, kulturak...) eta noski, inguruarekin konprometitua.*
2. *Sormen handikoa: hezkuntza komunitate osoak egiten dituen proposamenak originalak, osasuntsuak, pentsakorrak...izatea.*
3. *Irekia: batua, izaera handikoa, parte-hartzailea, irekia, integratzailea eta hurbila.*
4. *Atsegina: bertan parte hartzen duten pertsonak, ziur, lasai, ulertuak, entzunak, motibatuak...sentitzea; hau da, eskola atsegina eta beti bizirik.*
5. *Koherentea: parte hartzen duen hezkuntza komunitatea guztiendako, gure hezkuntza eredu ildoak, eredu bat izatea*
6. *Dibertigarria: jolasa, esperimendazioa, manipulazio zuzena eta bizipenak, eskolako eguneroko martxan oinarriak izatea.*
7. *Eleanitza: hizkuntzen arteko aberastasunari esker, umeen hizkuntza konpetentzia bermatzea.*
8. *Hau dena lortu ahal izateko, oso argi daukagu aurrera eramaten dugun metodologiak proiektuetan oinarritua egon behar duela, hau da, beti haurren interesa eta motibaziotik abiatuko gara. Haurrak dira bere ikaskuntzaren prozesuan gidatzen gaituztenak.*
9. *Gu entzumen aktibo eta jarraian gaude giro aproposa sortzeko eta ikaskuntza horiek eman daitezen.*

Ikusi ahal izan denez, haien ezaugarri berezko eta bakarrek, metodologia ezberdin bat aplikatzea dakarte. Beti haurren interes eta beharretan oinarrituz, *proiektuak* sortzea

eta hauekin, haurren garapen prozesuarekin jarraitzea. Proiektu hauek haurren garapenean landu beharreko gaitasun guztiak sartzen dira eta denak globalki ematen dira. Proiektuak ikastetxe mailan lantzen dira, eskolan sarean lan egiten, eta beste aldetik, ikasgela bakoitzean proiektu propioak sortu. Beti ikastetxeak hezkuntza komunitate osoari proiektu hauen berri eta parte hartzeko aukera ematen die.

Proiektu hauen adibide nagusitzat “Patioaren Proiektua” daukate. Ikastetxea ireki eta lehenengo urtean sortu zen proiektu hau, eta ondorengo bi ikasturteetan landu zen. Proiektu honek patioa eremu hezitzaile bezala ulertzea dakar eta nola *Kanpo Espazio batek*, *Barne Espazio* batek bezala funtzio hezitzailea duen. Ikastetxe honen filosofian oinarrituz, espazio bakoitza garrantzizkoa da oso eta haietan, haurrek milaka aurkikuntza eta esperientzia aurki ditzakete. Patioan bertan, haurrek askatasun gehiago daukatenez, joko eta aukera gehiago izaten dituztelarik, haurren behar eta nahietara egokitzea beharrezkoa dela uste dute.

Haurren nahi eta beharretatik sortu zen proiektu hau eta honek, “Patioaren” eraketa edo eraldaketa ekarri zuen. Proiektu honetan lagundu zuen faktore garrantzitsuen, hurrengoak izan zen: patioa eremu hutsa zela. Lehenik eta behin, haurrek patio behatu zuten eta ahulguneak ikusi zizkioten. Beraz, espazio horren eraldaketa eskatu zuten eta haien espazioa errebindikatu. Kanpo eragile askoren laguntzaz (ikasle, familia, irakasle, gizarteko beste kide batzuek (arte eskolako ikasleak)), “nire ikastetxeko patioa berezia da” proiektuarekin hasi ziren. Proiektu honek ondorengo helburuak zituen:

*Jolas-tokien diseinuaren garrantziaz jabetzea, baloreak, haurren arteko harreman-modu desberdin eta baikorrak, eta bizipen eta ikasketa berriak sustatzea. Patioaren inguruan hausnarketa egiteko eta informazioa izateko gunea sortzea*

Lan taldean arituta, haien “Ametsetako Patioa” eratzea lortu zuten eta orain patio horren eraiketan dabilta lanean, prozesu guztian sortu ziren ideiak praktikara eramaten. Ideia, hauek *espazio edo gune* moduan ere ulertu daitezke, ikasgeletan dauden “txokoen” gisara. Tamalez, oraindik horretan dihardute eta lan nekeza denez ideia gutxi eraman ahal izan dituzte praktikara.

Espazio honekin erlazionatuta, patioan “Baratza bat” eraiki dute, kanpo profesionalen eta boluntarioen, eta hezkuntza komunitate guztiaren laguntzaz (*Ikusi, Eranskina I*).

*Kanpo Espazioan*, eremu ezberdinak daude eta haien artean Baratza dago. Baratza, *Kanpo espazioan* murgilduta dago eta erabat irekia da, hurrek bertan dauden uneoro behatzeko. Baratza, patioko eremu bat bezala ulertua bada ere, bere inguruko proiektu bat darama ikastetxe osoak. Proiektu honetan landareen lanketaz aparte, barazki, landare eta fruten sal-erostea ere ezarri dute eskolan. Beraz, bai ingurunearen ezagutza eta natur zientzian lanketa, eta logika-matematikoaren gaitasunen garapena dakar. Proiektu hau, ikasgela bakoitzak bere erritmorat lantzen du bere gelan baina esan bezala, eta beste proiektu askoren antzera, hezkuntza komunitate guztiak parte hartzen du. Nahiz eta ikastetxeko gela guztiek parte hartu, kurrikular mailan, Lehen Hezkuntzako ikasleek aurrera daramate. Honetaz gain, Haur Hezkuntzako zein Lehen Hezkuntzako gela bakoitzak konpost-gailu bat dauka eta bakoitzak ekarpen bat egiten dio Baratzari.

Esandakoarekin ikusi ahal izan da bai Haur Hezkuntza mailan eta baita *Kanpo Espazioaren* eremuan ikastetxe honen daukan filosofia eta metodologia. Hala eta guztiz ere, espazio horretan parte hartzen duten adierazle batzuen azterketarekin jarraituko nahiko nuke.

- *Irakaslea*: Irakaslearen papera kanpo-espazioetan, haurraren jolas edo bizipenetan behaketa eta jarraipena egitea izango litzateke, espazio ireki batean. Espazio Hezitzailea bezala ulertzen dutenez, irakasle guztiak momentu hori konpartitzen dute. Espazio honen eremu bat beste modu batera ere lantzen dutela ikusi dugu eta hau Baratza da. Baratzaren hainbat lan egin behar direnean (landatu, irrikatu...), irakaslearen papera, hurrek ingurunearen ezagutza barneratzen lortzea da.
- *Askatasuna/gidatua*: Ikastetxe honek proiektuetan lan egiten duenez, haurren parte hartze aktibo, autonomoa eta funtzionalean sinesten dute. “Baratzaren” proiektua, haurren nahietatik sortu zenez, haurren nahiekin garatzen da, baina beti ere irakaslearen laguntza. Esan bezala ere, “Patioaren” ordua, espazio libre bat bezala ulertua da, hurrek haien harremanak sustatzekoa eta bestelako aurkikuntzak eta jolasak egiteko unea delako.
- *Espazioa/denbora*: Espazioa eta denborari dagokienez, muga asko aurkitzen zaizkio hezkuntza mailan, *Kanpo Espazioari*. Nahiz eta gelan “patioaren”

proiektua landu izan, “Patio” eta bertan esperimentatzeko ordua, 30 minutuko “atsedenaldia” mugatzen da. “Baratza proiektua” aldiz, ekintza konkretu bat den bezala ulertzen da. Espazioa mugatua dauka (Baratza eremua) eta denbora ere murriztuz gelditzen da askotan, beste proiektu asko lantzen ari direlako aldi berean.

- *Esploratzea*: Esan bezala, “Patio” ordua, bertan harreman eta esperientzia berriak sortzeko aukera ematen duen eremua librea da. Ikasgelan edo beste hainbat proiektuetan aurkitu ezin ditzakegun esperientziak eta esploratzeko aukerak dauzkagu bertan. Hala ere, “ametssetako patioa” lortzen ari diren aldiro, espazio hori handituz doa haurrek nahi zituzten nahietara egokituz. Haiek nahi dituzten esplorazioak egiteko “espazio txikiak” sortuz: “Baratza” sortu izan den bezala.

Beraz, esan genezake *esplorazioan*, eremu horiek 4 faseak betetzen dituztela. Lehenik eta behin, pentsatzearen ideia oso garatua daukate, haiek sortutako patioa delakoz. Bertan behaketa eta honen analisia landua daukate jadanik. Gainera, haien esplorazio eremuak eta gaiak aukeratzen dituzte eta haien erara landu. Honetaz gain, Baratzean, behaketa eta kausa-efektua behar bezala lantzen dute: *Zer landu behar den, noiz, nola, txandak errespetatzen jakin...* Lehenengo ideiarekin batera esan dezakegu, eremu horiek “egiteko” pentsatuak daudela, esperientzia berriak aurkitzeko. Nahiz eta zer dagoen ezagutu aukera gehiago sortu daitezkeelako beti. Patioan dagoen espazio batean, adibidez: *Baratzean, landaketa eta landareen ernalketa lantzen dute edo konpost-gailuaren erabilera. Baina beste egun batean, hauek hazita daudenean, nola garbitzen eta nola prestatzen diren ere landu dezakete.* Ondoren, gelan beti patioan egindakoaz “hitz egin” dezakete eta haurren interesa handia bada, honekin jarraitzen dute eta aurkitzen doazen informazioarekin osatzen. Adibidez, Baratzarekin: *lehenengo nola landatu, gero ureztatzearen eta argiaren beharra, nola atera eta garbitzen diren...* Azkenik, aurkitzen duten informazioa “erregulatuz” eta antolatuz doaz, proiektu batean bilakatuz. Adibidez: *Baratza baten funtzionamendua*. Hau baita eskola honen filosofia.

Nahiz eta ikastetxeak bere interes eta borondate guztia jarri, “Ametsetako Patioa” prozesuan dagoenez, esperientzia kopurua oraindik txikia dela esan genezake. Beraz, faseetan hutsuneak ez badaude ere, hauek askoz ere anitzagoa izan zitekeen. Hau da, esperientzia kopurua igo zitekeen, patioko beste txoko ezberdin bat sortuz.

### 2.1.2. El Martinet

El Martinet, Bartzelonatik gertu dagoen Ripollet herrian kokatuta dago, zehazki Can Mas auzoan, 2004ko kurtsotik. Ingurua emigrazio altuko eta ekonomia baxuko auzoa da eta nahiko zaharkituta eta urbanizatutako gunea da. Baliabide eta zerbitzu gutxiko auzoa izanik, proiektu hau sortzeko aukera eman zieten zuzendaritza talde bati. Talde honek proiektuarekin hasieratik egoteko aukera izan zuen, eskola eraikitzen hasi zen unetik. Beraz, haien eskola sortzeko aukera aprobetxatu eta espazio ezberdinak prestatzeko aukera izan zuten.

Haien filosofia, eskolarekiko begirada ezberdin bat sortzea izan zen, inguruan zegoenarekin osoki konprometituz. Komunitate bat sortzea non elementu guztiek espazio bat edukiko luketen. Kanpoko zein barneko faktorek komunitatean lan egiteko aukera edukitzea eta honekin, ikerkuntzarako, eztabaidetarako eta errespeturako espazio bat lortzea. *Ikaskuntza Komunitate* batean lan egitea.

Eskolaren arkitekturak, *espazio* ezberdinak sortzeko aukera eman zien. Haien filosofian, eskolako espazioak modu ireki batean ulertzen dituzte eta hauek harremanetan zentratutako heziketan pentsatuta daude (*Ikusi, Eranskina II*). Beraz, ez dago espazioen arteko hormarik eta *Kanpo Espazioa eta Barne Espazioa* bat bera dira. Espazioak modu aldakor batean ere ulertuak dira, hau da, eskolak aldatu behar du bertako pertsonak aldatzen doazen heinean. *Eremuak* askotarikoak dira, bai *barnean* eta bai *kanpoan* ere, hurrei harremanetarako eta esperimentaziorako aukera gehiago emanez. *Espazio* hauek, taldean eta hezkuntza komunitatean erabiltzeko sortuak dira, bertako bizipenak partekatzeko. Nahiz eta espazio askotarikoa egon, “barnean” dauden espazioak, mailatan banatuta daude: Haur Hezkuntzakoak (Txikien espazioak), 1-2-3 mailakoen espazioak (Ertainen espazioak) eta 4-5-6 mailakoen espazioak (Handien espazioak). Gainera, ikasle talde bakoitzak bere erreferentzia espazioa du eta bai sartzean eta bai ateratzean, bertan biltzen dira. Hau *Kanpo Espazioan* antzekoa

bada ere, espazio handi eta komun bat partekatzen dute eta honek maila ezberdinetako haurren harremanak areagotzen ditu. Denborari dagokionez, eskolako *espazioen* antolaketa, haurren aukeran uzten da. Egunak egun, hurrek aukeratzen dute ze espaziotan egon, norekin eta zenbat denboraz.

Nahiz eta eskolak haurraren garapena *espazioetan* landu, bestelako jarduera edo proiektuak era sortzen dira hezkuntza komunitate mailan: tailerrak, taldekako proiektuak, eskola mailako proiektuak, familien espazioak...

Azkenik, irakaslearen papera, haur aktibo, erreflexibo, berritzaile eta ikertzailearen *laguntzaile* bezala ulertua da. Haurren behar eta nahiei entzun eta haiek uste dutena estrukturatzen laguntzea. Hurrekin zein familiekin *espazioen* antolaketan edo transformazioan lan egiten du eta beti haurren garapena dokumentatzen du. Irakasle bakoitza *espazio* batean dago eta bertako *arduraduna* izatera pasatzen da.

Deskribapen honekin batera, azterketa honekin jarraitzeko, aukeratutako adierazleei erreparatuko diegu berriz ere. *Kanpo espazioan* nola lan egiten duten edo nola ikusten duten aztertzeko. Aldagai hauek eskola beste modu batera aztertzen eta begiratzen lagunduko digutelakoan:

- *Irakaslea*: El Martineteko irakasle izatea, hezkuntza komunitate batean lan egitea den bezala, irakasleak eskola ikusteko beste begi bat eduki beharko du eta beste batengana iristeko eta ezagutzeko beste modu bat. Gainera, irakaslea pertsona sozial eta kulturalki irekia den bezala, bere ingurunearekin eta auzoarekin, konprometitua eta hiritar kritikoa eta aktiboa ere izan behar da.
- *Askatasuna/Gidatua*: Ikastetxea *espazio* edo eremuetan banatuta dago eta horietatik pasatzen dira haurrak egun osoan zehar. Hurrek beraiek aukeratzen dute ze *espaziotan* egon, norekin, zenbat denbora eta noiz. Bertan, nahi duten modura esperimintatzen dute eta besteekin harremandun. Irakasleak *laguntzaile* papera hartzen du.
- *Espazioa/denbora*: Bi kontzeptu hauen esanahia argi edukitzea beharrezkoa da, El Martinet ikastetxearen egitura eta funtzionamendua ulertzeko. Ikastetxearen antolamendua “*espazio*” ezberdinetan oinarritzen da eta hautako bakoitza, eremu hezitzaile bezala ulertzen da. *Denboraren* kontzeptua, beste ikastetxe askotatik ezberdintzen du hau. Eguna ez dago tartetean banandua, eta haurrak *Kanpo Espazio* edo *Barne Espazioetatik* nahi duten bezala ibili daitezke.

Askatasuna nabarmentzen da eremu hauen aukeraketetan eta denboraren malgutasunean.

- *Esploratzea: Espazioak* eremu hezitzaileak diren bezala ulertzen direnean, esplorazioa eremu horien parte dela ere esan dezakegu. Haurrak *espazio* batetik bestera ibiltzen dira eta eremu hauetan haien garapen prozesuaren eta nahien arabera erabiltzen dituzte. *Kanpo espazioei* dagokienez, eremu batzuek esperimentaziorako aukera gehiago ematen dituzte besteek baino. Adibidez: *Uraren zikloa lantzeko eremua, Baratzaren eremua, Basoaren eremua...* Bertako baliabide materialek aukera gehiago edukitzea baliotzen dute eta honek zientzia naturalak lantzeko aukera gehiago. Adibidez: *Uraren zikloa eta urarekin nahasketak sortzea, area lokatza nola bihurtzen den, zergatik, zerekin...* Errealitate naturala ezagutarazteko modu ezberdinak dira eta hauek haurren ezagutza zabaltzen dute. Eremu bakoitzak, esperientzia ezberdinak edukitzeko aukera ematen du eta haurren interesetara erregulatzen da. Rosa Maria Pujolen teoriaren arabera, behaketa eta “pentsamendua erregulatzen” duen fasea osoki beteko lukete, esperientzia ezberdinen trataerari dagokionez. Eragiketa bat egin baino lehenagoko ideia antolatu eta dauden galderak erantzuten saiatzen dira. Honekin batera, “egitearen” fasearekin honekin bat letorke. Hurrei behatzeaz aparte, egoera horiek aktiboki bizitzeko aukera ematen diete espazio hauek. Egoerak lehenengo pertsonan bizitzen dituzte, haiek dira egoeren kausa eta efektua ere. Manipulatzea, eraldatzea eta ikertzea dira eremu hauen xede nagusia eta honekin hurrek, haien bizipenetatik ikasten dute eta esperientzia handitu. Adibidez: *Uraren espazioan, transfusioak, nahasketak, materialen moldaketa....egitea.*

Honetaz gain, esan genezake, azkeneko bi faseak bigarren plano batean gelditzen direla, Haur Hezkuntzara begira. Egia esanda, beste mailetan osoki betetzen dituztelako. Hurrek askatasun guztia daukate txokoetan ibiltzeko eta bertan haien ikaskuntza bizitzen dute. Baina, ikaskuntza hau “konpartitzeko” eta “erregulatzeko” ez dago eremu espazial ezta denbora tarterik ere. Esan nahi dudana da, ikaskuntza hori beste maila batera heltzea batzuetan esanguratsua izan daitekeela. Hurrek txokoetan bizi, aurkitu edo landu dutena pertsonalki lantzen dute, baina ikaskuntza, eremu zabalago batera eramanda, hau ere zabal



liteke. Honek bi aldeetatik eragin dezake. Lehenik eta behin, beste ikaskideek, ezagutu ez duten esperientzia batez jakiteak, handien ezagutza handitzen du. Eta beste alde batetik, esperientzia kontatu duen haurrari, beste ikaskideek iritziek edo ideiek, bere ezagutza zabaltzen lagunduko diote. Taldean komunikatzean, uste ez genituen ideiak sortzen dira eta hauekin galdera berriak. Galdera berriek eremu ezberdin batera garamatzate eta hauek ezagutza berri batengana. Hau da, Ikaskuntza esanguratsu baten paper garrantzitsuena. Ezagutzaz, ezagutza, ikaskuntza osatzen joatea.

### 2.1.3. Oihanzabal

Oihanzabal, Jaunsaras herriko Basaburua (Nafarroa) aranean kokatutako ikastetxe publikoa da, hau da, landa eremu batean. Nahiz eta bere ateak 86/87ko hamarkadan ireki, 2011/12ko ikasturtean ikastetxearen eraldaketa prozesua sortu zen. Lehenengo aldiz ireki zutenean, momentuko beharrei erantzuten zien ikastetxeak eta beraz, orain, garaiko nahi eta beharrei erantzuteko jaio da. Azkeneko urteetan ingurune soziala asko aldatu da eta honekin, eskolaren transformazioari ekin diote. Eskola 3 profesionalekin hasi zen eta urteak pasa ahala eta bilera eta topaketa asko izanda, eskolak bere praktika eta bidea finkatu dute, beste hainbat profesionalekin. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza eskaintzen duen, hezkuntza komunitate ireki eta berri honek. Hezkuntza komunitate honek, inteligentzia emozionala lantzeaz aparte, metodologia berrien ezarketa eta haurren gertuko entzumena ekarriko du. Ikastetxe hau *Ikaskuntza komunitate* baten filosofia edukiko luke.

Dekalogo etiko hezigarri erreala osoki betetzen duen eskolaz ari gara. Dekalogo honek hurrengo puntuei ematen die garrantzia: Jolas libreari, proiektu libre eta presiorik gabekoei, uniforme eta bata beharrezkoa denean bakarrik, korroa edo asanblada ez da derrigorrezkoa, leku batetik bestera joateko ez dago lerrorik, ez dago fitxarik, matematika eta irakurketa eta idazketa prozesua haurrek erabakitzen dute noiz egin, irakaslearen lana *laguntzailearena* da, gurasoen sarrera librea da.

Lehenik esan behar da, eskola landa eremuan dagoenez, herri askotariko jendea datorrela eskolara, bai autobusez eta bai taxiz. Beraz, eskolara etortzen diren haur kopurua urtero aldatzen da eta honen arabera, ziloka edo taldeka lan egiten da.

Orain arte , zikloka lan egin dute, 3 taldetan. Haur Hezkuntzan adibidez, 3 mailak elkarrekin lan egiten dute eta talde osoaren irakasleak 3 tutoreak dira. Denak dauzkaten espazioetan mugitzen dira eta denak dira haur guztiak behatzen eta hezten dituztenak.

Ikastetxe honetan haurrak, gai, trebe, sormen handikoak eta bakarrak diren bezala ulertzen dira eta hauek, sentitzeko aukera, entzuten zaiela jakitea eta denbora, behar dute garatzeko. Honekin bat, irakaslearen rolari, entzute pedagogia eta behatzaile papera, dagokio. *Laguntzailearen* papera. Ikasle bakoitzaren erritmoa errespetatu behar du irakasleak eta horretarako espazio eta denbora librea edukitzea beharrezkoa ikusten dute. Horretarako eskolan pasatzen duten denbora tarte luzea eta librea izatea behar du izan. Espazioen arabera, eremu ezberdin asko dauzkate eta hauekin bat kalitatezko eta askotariko materialak. Gehiengoak naturalak, eremu naturalean daudela kontuan izanik. Espazio, denbora eta materialen distribuzioa aurrera eramateko dagoen modua definitzea falta zitzaien eta nola ez, joko librea eta bat-batekoan pentsatu zuten. Beraz, hau kontuan edukita espazio ezberdinak eta talde txikietan egiteko proiektuak pentsatu zituzten. Azkenik, proiektu guzti hau ez litzateke beste modu batera izango familien laguntzarik gabe, zeintzuek eskubide guztia daukaten hezkuntza proiektu honetan parte hartzeko. Gainera, kurtsoan zehar 3 bilera egiten dituzte, egunerokotasuneko harremanaz aparte.

Adierazle batzuen arabera ikertu nahiko nuke eskola honen *Kanpo Espazioa*. Bere esanahi propioaren eta proiektuaren inguruan gehiago jakin eta sakontzeko nahietan. Eskola hau landa eremu batean dagoen ikuspuntua galdu gabe egin nahiko nuke azalpen hau.

- *Irakaslea*: Irakaslearen *papera laguntzailearena* dela kontuan izanda, bere funtzio nagusiak haurraren hezkuntza prozesuaren behaketa eta dokumentazioa dira. Bere parte hartzea edo egitea mugatua da oso eta gehien bat, haurrari galderak sortzean dago gakoa, berak bere proiektu propioaren bidea aurki dezan.
- *Askatasuna/gidatua*: Aurreko puntuan azaldu den bezala, haurrak bere proiektuak askatasun osoz burutzen ditu eta bera da bere ekintzen jabe. Irakasleak hezkuntza prozesu hau modu pasiboan *gidatzen* du. Hau da, haurri

galderak sorraraziz edo kezka sortuz. Honek haurrari, bere autonomia garatzen eta esperientzia berriak bere kabuz aurkitzen eta ulertzen lagunduko dio.

- *Espazioa/Denbora*: Deskribapenean ikusi ahal izan dugu bezala, honetan datza eskola honen filosofia nagusia, *Ikaskuntza Komunitate* gehienek konpartitzen dutena. Espazioa eta denboraren ideia, askatasunean eta mugarik gabe bezala ulertzen da. Haurrak, espazio ezberdinetatik mugitu daitezke, ordu edo mugarik gabe. Espazio hauek *Barne espazioak* dira, *Kanpo espazioaren* trataera ezberdina da. Haien *Kanpo espazioa* eskolatik at dago, ez da patioa, basoa da. Landa eremuan daudela aprobetxatuz, astero behin arratsalde, eskolatik kanpo ateratzen dira. Honek beste espazioak eta eremuak esploratzeko aukera ematen du eta honekin, inguruan daukaten herriarekin harremanetan jartzeko aukera.
- *Esploratzea*: Irakaslearen gidaritzapean egon gabe, haurrak askatasun osoz bilatzen dituzte espazio ezberdinetan dauden aukerak. Bertan, haien nahien arabera proiektu ezberdinetan lan egiten dute eta honen lehenengo pausoa, esplorazioa da. Esplorazioa izaten da Ikaskuntza Komunitate baten metodologia nagusiena, honekin ikaskuntza esanguratsua lortzen delakoz. Hau da, esploratuz eta gertutik egoerak biziz, hauen zergatia eta nolakotasuna ikertu eta ikasi daitekeelakoz.

Beraz, esplorazio horretan “pentsatzearen” eta “egitearen” faseak, komunitate hauetan oso landuta dituzte, espazio ezberdinen artean. *Barne espazioan*, eremu ezberdinak daukate eta *Kanpo Espaziora* astean behin ateratzen dira. Ikaskuntza Komunitateetan faltan botatzen dudana, azkeneko bi fasea dira: “Hitz egitea” edo ikaskideekin konpartitzea eta daukagun informazioa “erregulatzea”. Ahulgune hau betetzeko ekintza ezberdinak egin ahalko lirateke. Baina hala eta guztiz ere, lehenengo bi faseei dagokienez, ikastetxe honek osoki betetzen dituela esan dut. Baina, ikastetxe honek daukan ingurunea aprobetxatuz, *Kanpo Espazioa (Ez Barne Espazioa)* lehenengo bi fase hauek gehiago landu daitekeela uste dut. Herri-gune edo nekazal gune batean daudela aprobetxatuz, ingurune aproposa dute Zientzia esperientziatik

lantzeko. Beraz, hau izango da aukeratuko dudan ahulgunea, eta hobetzen saiatuko naizena.

## 2.2. Taula

Hurreko puntuan ikastetxeen deskribapena eta adierazleen inguruko analisia azaldu da. Bertan, hainbat puntu garrantzitsu azaldu dira eta hauen era argiago batean azaltzeko taula bat burutu dut. Bertan, Eskola bakoitzaren deskribapen grafikoa azalduko da adierazleen arabera.

### 1.Taula: Ikastetxeak eta Adierazleak

Adierazleak	ESKOLA 1 (Buztintxuri)	ESKOLA 2 (El Martinet)	ESKOLA 3 (Oihanzabal)
IRAKASLEA	Patio ordua: Behatzailea Baratza proiektua: Laguntzaile	Kanpo espazioa: Behatzaile	Kanpo espazioa: Behatzaile
ASKATASUNA/GIDATUA	Askatasuna	Askatasuna	Askatasuna
ESPAZIOA/DENBORA	Mugatua: -Patio ordu -Bestelako proiektu edo ekintzak.	Irekia/askea Mugatua:Errutinak	Irekia/askea Mugatua: -Errutinak -Kanpo espazioa
ESPLORATZEA -Pentsatu -Egin -Hitz egin -Erregulatu	Denak: Bete. Denak: Aberastu	Pentsatu/egin: Bete Hitz egin/ Erregulatu: Ahulguneak	Pentsatu eta egin: Ahulguneak (Kanpo espazioa) Hitz egin/ Erregulatu:Osatu



### 3. PROPOSAMEN PEDAGOGIKOAK IKASTETXEETAN

Gure egileen teorien inguruko adierazleak kontuan hartuta, ikastetxe ezberdinen azterketa burututa dago. Bertan eskola hauen ezaugarriak azaldu dira eta adierazle hauekin hauen hutsuneak edo ahulguneak adierazi dira. Adierazleak hainbat izan diren heinean, azkenekoari erreparatu nahi nioke zehatzago. *“Esplorazioari”*. *Kanpo Espazioa* lantzen ari garenez adierazle hau esanguratsuagoa iruditu zait, eskolek arlo honetan dauzkaten aurkitzeko. Adierazle honek, *Rosa Maria Pujolen* teoriaren dauka oinarritzat. Bertan, *“pentsatzea”, “egitea”, “hitz egitea” eta “erregulatzea”* azaltzen dira. Ikastetxe bakoitzak 4 fase hauetariko batean edo batzuetan ahulguneak dituztela ikusi ahal izan dugu eta orain hutsune hauek moldatzeko saiakera heldu da. Ikerketa on baten atal garrantzitsuenetarikoa hutsuneak identifikatzea den bezala, hauek hobetzeko proposamenak azaltzea ere praktika hona da. Beraz, honetaz hitz egingo du atal honek.

*Ahulguneak* identifikatua, hauek hobetzeko *proposamenak* burutuko dira. Hauek, anitzak izan daitezke, eskolaren hutsunea zein fasetan dagoenaren arabera. *“Pentsatzean”* edo *“egitean”* baldin badago, tailer, txoko edo espazio berri bat burutu liteke, baina azkeneko beste bi fasetan badago, agian egokiena, *“hitz egiteko”* eta hau *“erregulatzeko”*, eguneko momentu bat bilatzea eta antolatzea izango litzateke.

Dagoeneko esan dugun bezala, dauzkagun 3 ikastetxeek behar ezberdinak dauzkate eta beraz, banakako proposamenak burutuko ditut. Atal honetan, ikastetxe bakoitzaren ahulguneak eta ustezko proposamenak azalduko dira, hurrenez hurren.

Honetarako ikastetxe batek besteari ekarpenak egiten ahal dizkiola kontuan izan dut, eta beraz, hobekuntza edo proposamen gehienak horretan dauden oinarrituak. Hala eta guztiz ere hainbat informazio gune arakatu ditut hau burutzeko eta ondorengoak dira: *Ikusi, Erreferentziak (Uría, Fernández, M. Jugar con la ciencia en Educación Infantil) eta (Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente. (1998). Huerto escolar).*

#### 3.1. Buztintxurri

Ikastetxe honek filosofia berritzailea dauka eta honekin proiektu oso esanguratsua burutzen ari dira. Patio proiektua dena. Proiektu hau, kanpo espazioa beste modu

batera ulertzeko eta lantzeko sortu zen. Bertan, Rosa Maria Pujolen 4 funtsezko faseak argi landu daitezkeela ikusi daiteke. Ikastetxeak hezkuntza eremu bat lortzeko inplikazio eta interes guztia duen arren, eta nahiz eta eremuendako proposamen anitzak dauzkaten, proiektu hau oraindik prozesuan dago. Hemendik aurrera, “Baratza” ez beste eremuak sortzeko prozesua beharrezkoa da, esplorazio eremu berriak sortzeko eta honekin haurren garapenean eragingo duten esperientzia ezberdinak azaltzeko. Proposamen berriek, teoriaren 4 faseak indartzea daukate helburu.

▪ *Proposamena:*

Esan bezala, ikastetxe honek patioa eremu hezitzaile batean bilakatu nahi duen heinean laguntzeko proposamen bat bilatzen ari gara. Ikastetxearen “Ametssetako Patioa” eraikitzen laguntzeko, patioa beste eremu bat sortuko nuke. Kanpo espazio batean gaudela aprobetxatuz, ikastetxeko hormetatik at, esperientzia berriak sortzeko aukera genuke. Esplorazioa xede eta haurren interesa bide, esperientzia berriak aurkitzeko eremua sortuko nuke patioan. Esplorazio horretan *Rosa Maria Pujolek* aipatzen dituen 4 faseak ezin ditugu ahaztu. *Pentsatzea, egitea, hitz egitea, eta erregulatzea*. Gure helburua hauek osoki lantzea edo indartzea delako.

*Eremu berri* honek, material ezberdinen identifikazioa, manipulazioa eta ikerketa izango ditu xede nagusi. Bertako materialak, baliabide natural izango lirateke eta hauek izango lirateke adibide batzuk:

-Hostoak, harriak,zuhaitzen oskola,....

-Area, irina, lurra...

-Babarrunak, dilistak, txitxirioak...

Eguneroko materialak, ingurune ireki eta natural batean. Material hauetaz aparte, inguruan daudenak ere erabili ditzakete: Patioko lurra, ondoko zuhaitzetatik eroritako hostoak, baratzetik soberan gelditu dena...edo etxetik ekarritakoak.

Material hauek lantzeko beste hainbat baliabide material edukiko genituzke. Bertan, ekintza ezberdinak burutzeko. Adibidez: trasbaseak, materialen disoluzioa, hauen arteko nahasketa, hauetako baten aldaketa... praktikatzeko. Hauek tamaina eta ezaugarri anitzekoak izango dira. Esaterako:

-Katiluak, platerak, basoak,, kuboak....

-Eskorga, soka...

-Ura ateratzen den txorrota....

-Koilarak, sardexkak, iragazki, inbutuak...

Haurrek, bertan, material anitzak dauzkate eta baliabide asko, hauekin jarduteko. Bi hauek konbinatuta, haurrek, egoera anitzak aurkituko dituzte txoko honetan. Ingurune natural batean sortzen diren egoerak dira eta haurrek, hauek ikertzeko aukera dute. Hau da, eremu honen helburu nagusia, errealitatea eta honek dauzkan fenomeno edo egoera ezberdinak ulertzea da.

Haurrek, egiteko, manipulatzeko eta esperimendatzeko aukera dute, jolasten ari diren bitartean. Hau egitean, haurrek haien eskuak erabiltzen dituzte eta egiten dutenaren behaketa, pentsatzen dutenaren edo zutenaren ideia eta egiten duten ekintzarekin suertatzen denaren arteko erlazioa ikusten dute. Haien arteko hipotesiak edo galderak elkar trukatzuz, konparatuz, aldatuz, aberastuz,...ezagutza lortzen doaz. Dena, komunikazioaren bidez. Ikasleek, bertan dagoenarekin edo ekartzen dutenarekin ikertuko dute eta interesatzen zaienarekin jardun eta ikasi. Haien interesetatik abiatuta, bizitzen dutenarekin ikaskuntza sortuz. Bizitzen eta ulertzen duguna, ikaskuntza bilakatzen delako. Hau da, Ikaskuntza erabat esanguratsua izatea.

Gure eremu berrian landu ondoren, gelan bertan hitz egiteko eta ikaskideei azaltzeko aukera eduki behar dute haurrek. Hau izango litzateke eremu honetan bigarren ideia nagusia. Haurrek, komunikatzeko aukera edukitzea eta duten informazioa antolatu eta erregulatzeko eremua. Ideia hau ere, patio zein ikastetxe barneko beste txokoetan ere aplikatu beharko litzatekeela uste dut, edozein txokok komunikatzeko beharra sortzen duelarik.

Azkeneko ideia honetarako, txoko horretan bertan, gune bat edukiko dute landutakoa apuntatzeko, paper eta arkatzekin. Batzuetan haurrek haien ideiak ez ahazteko plasmatu behar izaten dute. Ondoren gelan arbela bat edukiko dute, bertan *Gure Proiektuak* jarriko luketena. Arbela horrek, patioan txoko ezberdinetan egiten egon direna azaltzeko balio izango du. Hau da, haur batek zerbait interesgarria egin badu patioan eta horrekin jarraitu nahi badu eta bere ikaskideei azaldu, patioan txokoan



idatzi edo irudikatu, eta gelara eramango du. Egunak joan egunak etorri, proiektu edo ideia horrekin doazen heinean beste ideia batzuk sortu badira patioan, jartzen joango dira, proiektua hau osatuz. Honetarako egokia izango litzateke *Novaken Kontzeptu Mapen teoria* aplikatzea. Haurrak ekartzen doazen informazioa erregulatuz joateko eta horrela informazioa argiago geratu dadin. Adb: zergatik gertatzen den hau, zeren ondorioa den,... Irudi on batez hurrek osatzen ari diren ideia eta honen aldagaiak argiago edukitzeko. Gelan edo haurrak gehiago landu nahi ez badu edo interesik ez badago, kendu eta bakoitzak berea gordeko du.

Txoko bakoitzaren ondoan mahai bat edukitzeak, seguritatea emango die hurrei eta hauei, egindako aurkikuntzak identifikatzen eta errazago ulertzen lagunduko die. Batzuetan irudikapen bat egitearekin eta haiendako gordetzearekin aski dutelako, aurkitu duten zerbaiten memoria edukitzeko. Baina batzuk gehiagora joan nahi dute eta beste lagunekin konpartitu. Interesgarria iruditu zaien zerbait lagunei azaltzeko, ulertu ez duten zerbaitetan laguntza eskatzeko edo denen artean proiektu handi bat egiteko aukera dagoela ikusi duelako. Haien ekintzak edo jarduerak plazaratzeko aukera edukiko dute gelan eta hauek azaltzen lagunduko dien arbela. Egindako ekintzak edo aurkitutako egoerak irudikatzen, hauek identifikatzen lagunduko die eta horrela informazioa modu antolatu batean ikusten. Gainera, beste lagunekin konpartitzerakoan, zituzten galdera, hipotesiak edo ideiak, baieztatuz, aldatuz eta aberastuz doaz. Honek ikaskuntzarekin jarraitzeko aukera emango du eta egoera berriak aurkitzeko grina sortu. Haien esperientzia ezberdinetatik, egoera berriak sortuko dira eta haien ikaskuntza handituz joango da. Hau baita Ikaskuntza esanguratsu baten helburu nagusia, errealitatea esperientziaren bidez ikastea.

### **3.2. El Martinet**

Ikastetxe honen *Kanpo Espazioa, Barne Espazioa* bezala, hezkuntza eremu bezala izendatzen da. Bi eremu hauek bat bezala ikusten dira eta haurrak batetik bestera ibiltzen dira espazio edo denbora mugarik gabe. Eremu hauetan, txoko edo espazio ezberdinak daude eta denek helburu globalak baldin badituzte ere, bakoitzak bere helburu propioak ditu. Hurrek, eremu horiek, esperimintatzeko eta esperientzia ezberdinak edukitzeko aukera betetzen dute. Esan bezala, Pujolen lehenengo 2 faseak osoki betetzen dituzte eta oso esanguratsuak dira haien Ikaskuntza Komunitatean.

Baina haratago joateak ere ikaskuntzarekin jarraitzen uzten digu eta esperientzia berriak aurkitzen lagundu. Taldearekin “komunikatzea” eta ikasitakoa “erregulatzen” jakitea. Bi fase hauek bete nahiko nituzke ondorengo proposamenarekin, hurrek bizitzen dituzten esperientziak edo ikasitakoa, taldean kontatzeko aukera berrestea. Esan beharra dago, Haur Hezkuntzara bideratua dagoela, hau beste mailatan ezberdina delako.

- *Proposamena:*

Proiektu honetarako, espazio ezberdinetan bizi izandakoa komentatzeko ordu edo momentu bat edukitzea beharrezkoa iruditzen zait. Asanblada derrigorrezkoa ez dela uste dudanetik, nahi duten hurrek haien esperientziak kontatzeko aukera edukitzea.

Lehenik eta behin egunean zehar denbora tarte batzuk zehaztu beharko ziren hurrek nahi dutena azaltzeko eta ikaskideek entzuteko. Esate baterako bazkaltzera joan aurretikoa eta etxera joan baino lehenagokoa. Bertan, ikasle bakoitzaren presentzia ez da derrigorrezkoa izanen, bakarrik entzun nahi dutenena eta kontatu nahi duenarena. Hurrek, patiotik ideiak ekarriko dituzte eta ikasgelan, edo haien sarrera eremuan, azaldu. Honetarako bi azalpen.

Alde batetik, esan beharra dago, *Kanpo Espazioan*, eremu anitzak daudela eta beraz, esperientziak ere asko dira. Helburua nagusia, hurrek bertan daukatena dokumentatzea izango litzateke lehenengo pausoa, ondoren gelara eramateko. Honetarako koaderno bat edukiko dute *Kanpo Espaziorako*. Koaderno espazio osorako izanen da, horrela, bertako txokoetako esperientzia guztiak biltzeko. Berdina gertatu liteke, barne espazioan eta horretarako beste koaderno bat edukiko lukete. Hurrek, hau hartu eta nahi duten eremura eraman dezakete eta bertan gertatzen ari dena dokumentatu.

Hau horrela izanda, hurrek haien koadernoan utzi dezakete eta haien ezagutza gisa gorde. Baina bigarren aukera bezala, gelara eraman dezakete eta egun horretan egindakoa azaldu. Horretarako, gelan, *mural* bat edukiko dute eta bertan egunean egin dutena azaldu dezake haurrak. Mural hau, aurreko proposamenean bezala, *Novaken Kontzeptu Mapen* bidez ere landu zitekeen. Kontzeptu mapak erabiltzean, esplorazioan bizitutakoa kontzeptuen eta hauen arteko harreman hierarkiakoa lantzen delako, eta lortutako informazioa zehatzagoa eta garbiagoa

delako. Azalduta, ikasgelan dagoen interesaren eta batez ere protagonistaren nahiaren arabera, proiektuarekin jarraitzea proposatu dezakete edo egileak koadernoan utziko du. Bertan uztea erabakitzen bada, gainontzeko egunetan egiten duena edo dutena (ikasle gehiago interesatuak badaude) bertan jartzen joango dira. Horrela ezagutza irudikatzen, identifikatzen eta antolatzen joango dira. Galdera berriak jartzen, ezagutza berriak antolatzen, zaharrak direnak berriekin elkarlotzen...ezagutza osatuz. Ikaskuntza esanguratsua bilatuz, aurkitu dugu.

### **3.3. Oihanzabal**

Oihanzabal ikastetxea *Ikaskuntza Komunitate* bat den heinean, Rosa Mari Pujolen teoriako lehenengo bi faseak osoki betetzen ditu. Esperientzia asko jasotzen ditu bai *Barne espazioan*, eremu ezberdinetan banaturik daudelarik. *Kanpo espazioari* dagokionez, atean behin ateratzen dira haien patioa den Basora. Bertan ekintza ezberdinak egiten dituzte eta naturarekin harremanetan jarriz, esperientzia anitzak bizitzen dituzte hurrek. Hauek landu ondoren komunikatzea eta honetaz hitz egitea faltako litzaieke, eta honetarako gune bat. Esperientzia ezberdinetatik jasotako informazioa definitzeko eta hau antolatzeko elkargune bezala. Taldean jartzearen filosofiak, ezagutza esanguratsu eta osatu bat edukitzen lagunduko liguke. Hau esanguratsua den heinean landu beharreko adierazpen bat da, baina beste ahulgune bat hartu nahiko nuke proposamen bat aurkezteko.

Esan bezala, ikastetxe hau, herri gune batean kokatuta dago eta inguruko herrietako haurrak etortzen dira bertara. Hurrek haien eremuan daukaten ingurunea, nekazal eta laborarien ingurunea da gehien bat, nahiz eta asko eraldatua izan azkeneko urteetan. *Kanpo Espazioa* hain anitza edukita, aprobetxatzeko modukoa iruditu zait aukera hau. Hurrek ezagutzen duten eremuko esperientzia bat ikastetxean bizitzea. Aukeratutako esperientzia, Baratza izango da. Herriko ohitura zaharrenetarikoa izango da hau eta gehienek bizi izan badute ere, beste modu batera ikusteko eta ez dakitena ikasteko gune aproposa da ikastetxea. Gainera, herriarekin bat elkarlanean aritzeko proiektu interesgarria da oso eta eskolatik at dauden profesional eta familia ezberdinekin lanean aritzea. Honetaz gain, Natur zientziez ari garen heinean, *Kanpo Espazio* bat ezin hobea da, izaki bizidunen garapena lantzeko. Baratzean, fruitu eta

barazki ezberdinen prozesua zuzenki ikusteko aukera ezin hobea da eta horrela elementu ezberdinen aldaketa eta hauen erabilera ikasteko.

- *Eskola Baratzea:*

Lehenik haurren interesak jakin behar dira eta hauek positiboak baldin badira proiektuarekiko, aurrera jarraitu daiteke. Hau jakinda, beste galdera bat egin beharko diete haurrek haien buruei: Zertarako landu nahi dugu baratzarekin? Landareen hazkuntza? Sal-erosketa? Herri inguruko lan ezberdinak? Hau jakitea oso garrantzitsua da, proiektua modu batera edo bestera lantzeko.

Lehenago aipatu bezala, ikastetxeak baratza bat egiteak, hau bera herriari gerturatzea ere lortuko luke. Horrelako jarduera batean, nekazal eta laborarien ingurugiroa duen herrian, asko eskaini dezake. Horretarako oso garrantzizkoa da, herriari bisita bat egitea eta esperientzia hori lehenengo pertsonan ikustea. Ikastetxe familia bati eskatuta edo herriko ezagunen bati. Bertara joateko, behaketarako prestatuta joan beharko dira haurrak eta beraz, hau gelan landu beharreko gauza da. Eta agian, baratzaren txokoa izeneko gune bat ere sortu, non, aurkitutako informazioa gordetzen goazen ondoren, gure baratze propioa egiteko. Bildutako informazioa guztia hartu eta sailkatuko da. Horretarako komunitate osoaren artean banatzea hoberena izango da eta panel handi batean informazioa antolatzen joan. Ondoren, proiektua ikastetxe mailan, martxan jartzeko ordua helduko zen. Honetarako pausoz pauso joatea hoberena.

Lehenik, baratza non egongo den zehaztu beharko da. Hau da, ze *Kanpo Espazioa* izango litzateke egokiena. Horretarako, hainbat faktore hartu beharko lirateke kontutan, hala nola: argia, sartzeko erraza, lurraren emankortasuna... Ondoren, ze lanabes eta material beharko diren eta honekin bakoitzaren lana eta erresposabilitatea antolatu. Hau da, txandakatze sistema ezarri edo ez, nork egingo duen zer eta nork ekarriko zen... Agian, egokiena, egutegi bat antolatzea izango litzateke, eta lan bakoitza taldeka burutzea. Dena antolatuta dagoenean, lantzeko teknikak erakusteko herritarren laguntza beharrezkoa izanen da. Haiek lagundu dezakete egiten eta nola egiten den erakusten ere bai. Baratza prest dagoenean, landatzen hasi gaitezke eta landareen garatze prozesuan murgildu.

Kontuan izan behar da, nolako lurra dagoen, ze garaitan gauden eta ze eguraldi egiten duen gauden eremuan. Gauza bat edo beste landatzeko. Honekin haurrek

hazi ezberdinen hazkuntza, eta landareen ernalketa landuko dute. Gainera, eta haiek nahi badute, herri ekimen bat proposatu daiteke. Bertan sortzen diren landare edo fruituak, saldu edo herrian bizi direnen artean banatu. Honekin haurrek, ikasten duten bitartean, haiek egiten dituzten ekintzen onurak ere ikasiko dituzte. Honetaz gain ere, eragiketa matematikoak eta logikoak ere landuko lituzkete.

Ikastetxe ezberdinek Kanpo Espazioa tratatzeko daukaten ikuspegia aztertu dugu. Horretarako Adierazle batzuk eduki ditugu (irakaslearen papera, espazio/denbora, askatua/gidatua, esplorazioa) eta hauekin hainbat datu esanguratsu lortu ditugu. Datu hauekin, ikastetxeek daukaten ahulguneak edo hobekuntzen beharra identifikatu eta hauek osatzean jardun dut. Ikastetxe bakoitzari proposamen berri bat emanaz. Azterketa edo Análisi honekin *Antecedentes* zatian neukan helburua lortu eta hainbat ondorio gehiago atera ditut. Hau hurrengo puntuan azalduko da: *Conclusiones* atalean.

## CONCLUSIONES

Con este trabajo hemos podido ver que la escuela ha evolucionado mucho en los últimos años. Este contexto histórico ha cambiado en nuestra sociedad y con ella la filosofía de la educación. Las escuelas elegidas han convivido en un *contexto histórico* similar y por ello tienen muchas cosas en común. Pero estas escuelas son también muy diversas teniendo en cuenta que se encuentran en diferentes espacios. Desde un ámbito rural a una pequeña ciudad o un pueblo industrial. La escuela cambia teniendo en cuenta la época en la que está, pero también cambia según el lugar en el que se encuentra. Al igual que la escuela es la raíz de un barrio o pueblo, también puede pasar viceversa. Es el citado pueblo o las personas que hay en él, los que modifican y eligen el colegio que quieren.

De antemano sabíamos que las tres escuelas elegidas eran la muestra de la educación innovadora. Y con ello pretendía ver los tipos de escuelas innovadoras y sus nuevas metodologías. Y lo hemos conseguido. En primer lugar hemos comprobado que existen *diversas escuelas nuevas* y que todas tienen algo que aportar. Y en segundo lugar, que existen metodologías y teorías que son *mayoritarias*. Como es por ejemplo la teoría de Loris Malaguzzi y sus Comunidades de Aprendizaje.

El Martinet y Oihanzabal son claros ejemplos de lo que son las *Comunidades de Aprendizaje*. En ellas se trabaja a raíz de espacios diversos y preparados en el que el niño o niña puede encontrar toda clase de situaciones enriquecedoras. Trabajar desde la experiencia para entender esas situaciones y ampliar sus conocimientos. El tiempo es esencial y no debe de estar limitado, respetando así las viviendas y el ritmo de los niños y niñas. Por otro lado, está siendo también muy común trabajar por *proyectos* como lo hacen en Buztintxuri. Teniendo en cuenta los intereses de los niños y niñas, la comunidad educativa se vuelca en un mismo proyecto. El proyecto va avanzando dependiendo de las circunstancias y las necesidades de los alumnos. Para estos proyectos tener un espacio abierto y rico en experiencias siempre es necesario.

Respecto al significado del *Espacio Exterior* en este tipo de escuelas innovadoras, hablamos de un espacio que no se desvincula del resto de los espacios. Es decir, es un espacio más dentro de la misma escuela. Cada espacio se diferencia de los otros, pero

a la vez se pueden entender como un solo. Es decir, todos los espacios aportan experiencias significativas, pero cada una de ellas es diferente al resto. El *Espacio Exterior* es un espacio educativo que aporta vivencias y experiencias en el proceso educativo y de crecimiento del niño o niña. Con *el Espacio Exterior* hablamos de exploración que llega a la experimentación, de vivencias enriquecedoras, de aprender haciendo.... En definitiva, de Aprendizaje Significativo (Ikaskuntza Esanguratsua).

Viendo cómo tratan el *Espacio Exterior* en las diferentes escuelas en el contexto histórico que nos encontramos, vemos que la escuela ha *avanzado* considerablemente. La *exploración* ha pasado a ser clave en la enseñanza, acompañado siempre de los intereses de los niños y de las niñas. Fomentando así la autonomía y el aprendizaje significativo. Dicho esto, podemos ver que los *indicadores* seleccionados para esta investigación, son claves en la evolución del sistema educativo de hoy en día. Recordamos que los *indicadores* utilizados son los siguientes: *El papel del profesorado, una metodología libre/guiada, espacio/tiempo y exploración (según las fases de Rosa M<sup>a</sup> Pujol)*.

En primer lugar, *profesorado* ha dejado de ser el pilar principal de los contenidos y se ha convertido en el “acompañante” inseparable del niño o niña en sus vivencias. Es fundamental una buena observación, meditada por parte del maestro o maestra, y desarrollar espacios nuevos con vivencias aun sin experimentar. En segundo lugar, todo este trabajo se desempeña en un *espacio* trabajado y enriquecido para que, en ella, los niños y niñas, puedan encontrar diferentes experiencias. Esto último es importante que vaya siempre acompañado de un *tiempo* ilimitado. Como ya se ha mencionado con anterioridad, la filosofía que se establece es el aprender desde la exploración. Encontrando nuevas experiencias y así ampliando el aprendizaje de cada alumno o alumna. Para ello es necesario *un contexto de libertad* y que no se establezca una enseñanza guiada.

Teniendo en cuenta el último indicador, según la teoría de *Rosa M Pujol* las fases al *explorar* deben de ser cuatro: Pensar, hacer, hablar y regular. Las Comunidades de Aprendizaje de las que hemos tratado hablan de experimentación y de las cuatro fases que esta conlleva. Intentando romper con el sistema antiguo, en las innovadoras, son

las dos primeras fases las que más han evolucionado, relacionando “el experimentar” con “el hacer”. Las Comunidades de Aprendizaje tienen como base crear espacios para trabajar las citadas dos primeras fases. En cambio, las fases de “hablar” y “regular” están menos trabajadas. No siempre se comparten las vivencias vividas o las situaciones aprendidas. Aunque con esto no quiero decir que no se trabajen, sino que, la metodología se basa en el aprendizaje individual del niño o niña. Por ello, son las dos primeras fases las más trabajadas. De diferente manera pasa cuando trabajamos por proyectos. Los proyectos parten de los intereses de los niños y niñas y ellos buscan esos espacios o vivencias de las que quieren aprender (pensar y hacer). Después de ello, al trabajar toda la Comunidad Educativa, “la comunicación” es vital. Comunicando, toda persona que forma parte de él aclara, explica o añade sus sugerencias, y así se va formando o “regulando” el proyecto. El proyecto es el final de un largo camino de aprendizaje. Con ello este tipo de trabajo cumple las citadas 4 fases.

Estos *indicadores* muestran que la escuela y la sociedad en general, están en un momento de cambio y no retorno. Esto es un hecho. Las escuelas innovadoras están haciéndose hueco en el presente y están evolucionando para ser parte del futuro. La filosofía general de la escuela está cambiando y con ella la sociedad tiene que evolucionar.

Concluyendo, hemos podido ver que existen *escuelas innovadoras* de todos los tipos y cada una de ellas *aporta* un nuevo punto de vista sobre la escuela. Puntos de vista diferentes entre sí, pero que son igual de aptas para la educación. Cada escuela siempre tiene algo que aportar y algo siempre es mejorable. Mientras una metodología puede aportar algo a otra, esta misma puede devolverle algo. Ejemplo: Una Comunidad de Aprendizaje puede asesorar en las primeras fases de Rosa M Pujol (Pensar y hacer), y una escuela que trabaja por proyectos, puede asesorar en términos como “hablar” y “regular”. Estamos en un momento de evolución en el que la comunicación entre diferentes escuelas es fundamental. Los maestros y las maestras necesitan enriquecerse a la vez que avanzan en sus propios proyectos, para así acomodarse a los nuevos contextos que se avecinan. Por otro lado, también tenemos que recordar que en las escuelas innovadoras, el concepto del *Espacio Exterior*, que al



igual que la filosofía educativa ha cambiado, el significado de esta también ha evolucionado, al igual que el de otros espacios. Anteriormente el *Espacio Exterior* se conocía solo por su capacidad de ocio, como un lugar de descanso. Pero como hemos podido ver, en estas escuelas, el concepto a cambiado y se reconoce como un espacio más dentro de la misma escuela. Un espacio educativo que tiene que formar parte del día a día de los niños y niñas y de su proceso educativo.

## ERREFERENTZIAK

- ADMINISTRACIÓN DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO. Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente. (1998). *Huerto escolar*. [Ikusteko (2013/5/15): [http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/es/contenidos/informacion/dig\\_publicaciones\\_innovacion/es\\_edu\\_ambi/adjuntos/800002c\\_huerto\\_escolar\\_c.pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/es/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/es_edu_ambi/adjuntos/800002c_huerto_escolar_c.pdf)]
- BREVE HISTORIA DE LA PEDAGOGÍA BLOGA. *Educación Contemporánea Federico*. [Ikusteko (2013/5/15): <http://brevehistoriadelapedagogia.blogspot.com.es/p/educacion-contemporanea-federico.html>]
- BULDAIN, A.; HOYUELOS, A.; NAZABAL, M.; REDIN, A.; SANTXO, G.; VELEZ, M. (2011/2012). *Aprender en la escuela*.
- BUZTINTXURI IKASTETXE PUBLIKOA. *Proyecto Educativo y Pedagógico*. [Ikusteko (2013/5/16): [http://cpbuztintxuri.educacion.navarra.es/public\\_html/wp-content/uploads/2013/01/PROYECTO%20EDUCATIVO.pdf](http://cpbuztintxuri.educacion.navarra.es/public_html/wp-content/uploads/2013/01/PROYECTO%20EDUCATIVO.pdf)]
- CENTROS EDUCACIÓN NAVARRA. *Escola El Martinet*. [Ikusteko (2013/5/16): <http://centros.educacion.navarra.es/caps/primaria2/files/Escuela%20Martinet.pdf>]
- CETRO VIRTUAL CERVANTES. (2000). Gramática Universal. *Centro Virtual Cervantes*. [Ikusteko (2013/5/17): [http://cvc.cervantes.es/ensenanza/biblioteca\\_ele/diccio\\_ele/diccionario/gram\\_universal.htm](http://cvc.cervantes.es/ensenanza/biblioteca_ele/diccio_ele/diccionario/gram_universal.htm)]
- EFGG. *Comparación de la Escuela Tradicional y la Escuela Moderna*. [Ikusteko (2013/5/17): <http://es.scribd.com/doc/36486664/Comparacion-de-La-Escuela-Tradicional-y-La-Escuela-Nueva>]
- DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN DE NAVARRA. (2007). *Publicaciones. Curriculum Infantil Euskara*. [Ikusteko (2013/5-7): <http://dpto.educacion.navarra.es/publicaciones/pdf/currinfantileusk.pdf>]
- EDUCACIÓN ALTERNATIVA BLOGA. Artículos. *Metodología Reggio Emilia*. [Ikusteko (2013/5/15): <http://educacionalternativa.edublogs.org/articulos/metodologia-reggio-emilia/>]

EDUCADORAS DE INFANTIL. [Ikusteko (2013/5/15):

<http://www.educadorasdeinfantil.es/?p=86>]

ESCOLA EL MARTINET. (2012 Ekaina). ...*a fora*.

FORMACIÓN INTEGRAL. *Corrientes Pedagógicas y Psicológicas en la Educación Infantil-*

*Primaria-Secundaria*. [Ikusteko (2013/5/15): [http://www.formacion-](http://www.formacion-integral.com.ar/index.php?option=com_content&view=article&id=606:corrientes-pedagogicas-y-psicologicas-en-la-educacion-infantil&catid=13:educacion-primaria-y-secundaria&Itemid=3)

[integral.com.ar/index.php?option=com\\_content&view=article&id=606:corrient](http://www.formacion-integral.com.ar/index.php?option=com_content&view=article&id=606:corrientes-pedagogicas-y-psicologicas-en-la-educacion-infantil&catid=13:educacion-primaria-y-secundaria&Itemid=3)

[es-pedagogicas-y-psicologicas-en-la-educacion-infantil&catid=13:educacion-](http://www.formacion-integral.com.ar/index.php?option=com_content&view=article&id=606:corrientes-pedagogicas-y-psicologicas-en-la-educacion-infantil&catid=13:educacion-primaria-y-secundaria&Itemid=3)

[primaria-y-secundaria&Itemid=3](http://www.formacion-integral.com.ar/index.php?option=com_content&view=article&id=606:corrientes-pedagogicas-y-psicologicas-en-la-educacion-infantil&catid=13:educacion-primaria-y-secundaria&Itemid=3)]

GARAPEN KOGNITIBO. (2008). *Garapen Kognitibo eta Motorea*. [Ikusteko (2013/5/17):

[http://garapenkognitibo.files.wordpress.com/2008/11/garapen-kognitibo-eta-](http://garapenkognitibo.files.wordpress.com/2008/11/garapen-kognitibo-eta-motorea.pdf)

[motorea.pdf](http://garapenkognitibo.files.wordpress.com/2008/11/garapen-kognitibo-eta-motorea.pdf)]

GRUPO PIKLER LOCZY DE LA ASOCIACIÓN DE MAESTROS ROSA SERRAT. (2007).

Barcelona. [Ikusteko (2013/5/17):

[http://centros.educacion.navarra.es/caps/infantil/attachments/article/21/Pikle](http://centros.educacion.navarra.es/caps/infantil/attachments/article/21/Pikler_Loczy.pdf)

[r\\_Loczy.pdf](http://centros.educacion.navarra.es/caps/infantil/attachments/article/21/Pikler_Loczy.pdf)]

HAINBAT EGILEEK .(2010-11 ikasturtea). *Montessori lana*. Nafarroako Unibertsitate

Publikoa, Haur Eskolen Antolaketa ikasgaia.

HIK-HASI aldizkaria. (1999). PIAGET, Jean. *HIK-HASI*. [Ikusteko (2013/5/16):

<http://www.hikhasi.com/artikulu/498>]

HIK.HASI aldizkaria. (2003). Jerome, Bruner. *HIK-HASI*. [Ikusteko (2013/5/17):

[http://www.hikhasi.com/fitx/fitxategiaJeitsi.php?id=49&emota=6&dok\\_id=113](http://www.hikhasi.com/fitx/fitxategiaJeitsi.php?id=49&emota=6&dok_id=113)

[7\]](http://www.hikhasi.com/fitx/fitxategiaJeitsi.php?id=49&emota=6&dok_id=113)

HIK HASI aldizkaria. (2010 Otsaila). Nazioarteko hezkuntza: Egoerak eta erronkak. *HIK*

*HASI aldizkaria*, 9-15(145).

MARIA LUZ RODRIGUEZ PALMERO. (2008). *La teoría del aprendizaje significativo en la*

*perspectiva*. Barcelona: Edición Octaedro. [Ikusteko(2013/5/17):

[http://www.slideshare.net/wpnoa/libro-la-teora-del-aprendizaje-significativo-](http://www.slideshare.net/wpnoa/libro-la-teora-del-aprendizaje-significativo-en-la-perspectiva-de-la-psicologa-cognitiva)

[en-la-perspectiva-de-la-psicologa-cognitiva](http://www.slideshare.net/wpnoa/libro-la-teora-del-aprendizaje-significativo-en-la-perspectiva-de-la-psicologa-cognitiva)]

MONOGRAFÍAS. (2010). *Teorías, Bruner*. [Ikusteko(2013/5/17):

<http://www.monografias.com/trabajos10/teorias/teorias.shtml#JEROME>]

- MONOGRAFÍAS. (2008). *Teoría del Aprendizaje Significativo de Ausubel*. [Ikusteko (2013/5/17): <http://www.monografias.com/trabajos6/apsi/apsi.shtml>]
- NOVAK, JOSEPH; GOWIN, D. BOB. (1988). *Aprendiendo a aprender*. Barcelona: Martínez Roca. [Ikusteko (2013/5/17): [http://www.omerique.net/twiki/pub/CEPCA3/CursoFuncionariosPracticas0809/Mapas\\_conceptuales\\_Novak.pdf](http://www.omerique.net/twiki/pub/CEPCA3/CursoFuncionariosPracticas0809/Mapas_conceptuales_Novak.pdf)]
- PERSPECTIVAS ALDIZKARIA. (1994). Vigotsky. *Perspectivas aldizkaria*, vol. XXIV, nos 3-4, 1994, págs. 773-799. Paris. [Ikusteko (2013/5/17): <http://www.educar.org/articulos/Vygotsky.asp>]
- PUJOL, R.M. (2007). *Didáctica de las ciencias en la educación primaria*. Madrid: Síntesis Educación.
- REVISTA DIGITAL “INVESTIGACIÓN Y EDUCACIÓN”. (2004). Chomsky. Gramática Generativa. *Revista Digital*. [Ikusteko (2013/5/17): [http://www.csub.edu/~tfernandez\\_ulloa/spanishlinguistics/chomsky%20y%20la%20gramatica%20generativa.pdf](http://www.csub.edu/~tfernandez_ulloa/spanishlinguistics/chomsky%20y%20la%20gramatica%20generativa.pdf)]
- UNIVERSIDAD ACADEMIA ETA PIIE. *Teoría del Aprendizaje Significativo de Ausubel*. [Ikusteko (2013/5/17): <http://cmapspublic3.ihmc.us/rid=1GLSV1Q2T-3QMRWG-GYG/Teor%C3>]
- UNIVERSIDAD DE ZARAGOZA (2007). *Curriculum Vitae de miembros de comisiones para concursos de acceso a los cuerpos docentes universitarios*. [Ikusteko: [http://moncayo.unizar.es/info/oposicionesyconcursos.nsf/currivitae/C00316/\\$FILE/pujol\\_2009\\_21.pdf?OpenElement](http://moncayo.unizar.es/info/oposicionesyconcursos.nsf/currivitae/C00316/$FILE/pujol_2009_21.pdf?OpenElement)]
- URIA, FERNANDEZ, M. *Jugar con la ciencia en Educación Infantil*. [Ikusteko (2013/5/15): [http://www.educa.madrid.org/cms\\_tools/files/272938f9-2d3d-4a1f-81ae-c0ce111869b5/jugarconlaciencia.pdf](http://www.educa.madrid.org/cms_tools/files/272938f9-2d3d-4a1f-81ae-c0ce111869b5/jugarconlaciencia.pdf)]
- VIGOTSKY. (1978). *Mind in Society: Pensamiento y Lenguaje*. Cambridge.
- YOUTUBE. (2013-5-15). *Bideoa, Buldain, A. Charla: Buscando otros caminos en la Educación Infantil*. [Ikusteko (2013/03/25): <http://www.youtube.com/watch?v=psBAkCOOGEo>]



## ERANSKINAK

### E. Eranskina I



#### 2. Irudia: Buztintxuriko Baratzea



#### 3. Irudia: Buztintxuriko Baratzea

## E.Eranskina II



### 4.Irudia: El Martineteko Kanpo Espazioa

Haur Hezkuntzan: Kanpo Espazioaren trataera Haur Hezkuntzako Ikastetxe Berritzaileetan